

San Joaneekin dator uda



Arg.: Segurako San Joan sua

Kirola eta osasuna

**I.M.D.
K.U.E.**
BEASAIN



**Antzizar
Kiroldegia**





OLABERRIKO UDALA

ALKATEAREN AGURRA

Berezi xamar ireki nahirik
aurtengo jaien atearik
agurra bertsoz eman nahi luke
gaur zuen alkateak
hori ta gehio mereziko du
bai gure elkarteak
San Joan jaiak ongi igaro
olaberriar maiteak.

Iaz eskerrak zabaltzen nitun
hemen nola edo hala
ta aurtengo ere eman nahi nuke
noski mezu iguala
jakin zazute gau eta egun
amets berdina dudala
guztionezako zabalik dago
Olaberriko Udalak.

Bihotza pozik ipintzen digu
festarako degun senak
horretarako San Joan jaiak
ditugu aproposenak
baina nola ez genduke nahi
gurekin gorde poz denak
beso zabalik hartuko dira
kanpotikan datozenak

Ongi jakinik elkarte honek
berak zer duen egarri
aurtengo jaien etorkizuna
lasai nezake igarri
eska deiogun Zaindariari
bedeinkapena ugari
alaitasuna eta pakea
bitez gure ezaugarri.

SEGURAKO UDALA

AGURRA



Berriro Segurako herria "SAN JOAN" jaietan!

KANPAI BERRIA, DOÑU BERRIAK, GURE HERRI ESKOLAKO GAZTETXO ADO-
RETSUEN KIROL EMAITZ UGARI ETA BIKAIÑAK, SEGURAKO FUTBOL TALDEAREN GA-
RAIPEN ETA MAILA BERRIAK...

Badegu aukerarik pranko egun hauetan, guzti hau SAN JOAN ETA SEGURA-
RREN ohoretan, pozez, alaitasunez eta elkartasunean ospatzeko.

GORA SEGURA!

Esker onez beteriko ZORION AGURRA aurrez egitaraua prestatzen saiatu den
FESTA BATZORDEARI.

GUZTIOI, SAN JOAN JAI ZORIONTSUAK!

Zuen Alkate,

Karmentxu Etxeberria

IRUROK



OPEL



N-1 errep. Madrid-Irun
☎ 88 51 50
OLABERRIA



**Ebaketa tresnetan Europako kalitaterik onena
salneurri erabat konpetigarrietan**

KENDU, Koop. E.

Industrialdea, z/g

SEGURA

☎ 80 13 40

Faxa: 80 19 05

LATZ, Koop. E.

Gudarien etorb. z/g

ANDOAIN

☎ 59 25 12

Faxa: 59 13 91

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1

(Postetxe gainean)

124 posta-kutxa

20240 Ordizia

Tfnoa: 88 96 12

Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre eta Argider
Mujika

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon Ara-
no, Mikel Albisu, Joseba Telle-
ria, Ane Martin, Loinaz Agirre
eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Jon Aizpurua, Rufino Iraola,
Xabier Urteaga, Joxe Antonio
Garmendia, Iñaki Murua, An-
doitz Telleria, Edurne Albizu,
Aitziber Murua, Xabier Mendi-
guren Elizegi, Nagore Goiburu,
Irene Urbitarte eta Naiara Etxe-
berria.

**Fotokonposizio eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 5.700 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



Auzolandegiak Beasain eta Zegaman

16tik 25 urtera bitarteko gazteek baduzue udarako, historiaz ikasi, lan piska bat egin eta ondo pasatzeko aukera. Aranzadi Zientzia Elkartek, GazteKutxak eta Beasain eta Zegamako udalek, elkarlanean, bi auzolandegi prestatu baitituzte. Gertuan duguna ezagutzera eman nahi da.

Bata, Beasaingo Igartza jauregiaren ikerketa eta kontsolidazio lana egitea da. Fatxada nagusia eta ibai aldera ematen duena garbitu eta sendotzea izango da lan nagusia. Armen patioa eta beheko solairua ere garbituko dira. Loinazpe Ikastetxean izango dute ostatua.

Bestea, San Adriango aterpetxean kokatuko da. Inguruan dauden monumentu megalitikoak garbitu eta identifikazio txartela jarriko zaie auzolandegi honetan.

Uztailaren 15etik abuztuaren 31ra, hamabostaldiko 3 talde, 90na lagunek, parte hartuko dute auzolandegi bakoitzean. Uztailaren 15-etik 26ra, 16-17 urteko gazteen txanda izango da; abuztuaren 5etik 18ra 18-21rakoena; eta abuztuaren 19tik 31ra, 22tik 25erakoena.

Lana bakarrik ez da izango ordea. Tailer informatiboak eta beste zenbait ekintza egingo dituzte. Besteak beste, lehenengo asteburuan, Aizkorrin gaua pasatu eta bibak-a, egunsentia ikusteko aukera izango dute; bigarren, Gipuzkoako itsasertzea aldenik alde pasatuko dute. Bi ekintza hauek, bi auzolandegiak elkartuta egingo dira.

Izen emateak Kutxaren bulegoetan egin beharko dira uztailaren 5a aurretik. Estantzia 10.000 pezeta kostatuko da.

BOTA BERTSOA



Haritz Zeberio

**Udan zen egin
behar duzu?**

Doinua: Ijito jende hoienak

Aurtengo udan kirol munduak Euskadin badu indarra Tourra bait dator Iruñeraino haizea eta malkarra Hautacan eta Larrau aldera ez degu ez plan kaxkarra aldapan gora ikusi asmoz "Lokomotora naparra"

Kantauri kostak ase ditzazke hondartza zaleen nahiak Iparraldeko herri txikiak goxoak eta lasaiak Donostiako aste handia ta Zarauzko Euskal jaiak bertantxe ere pasa litezke udako opor alaiak

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Seguran Barrabás jotzea, Itsasondón etsaiei burua haustea

GOIERRITARRAREN 90. zenbakian irakurri nuen Aste Santua zela eta, Seguran egiten zen 'Barrabás jotzea'. Gure aita zenari askotan entzun genion ohitura berdina Itsasondón bazela. Honela kontatzen zuen:

"Gu gaztek giñala, Aste Santun, ostiral edo larunbat santuko elizkizunean, 'Etsaiei buru austea' egiten genuan. Egun batzuk aurretik, basotik, enbor zahar bat ekartzen genuan gurdin, eta eliz barruko korupean jarri. Eguna irixten zanen, gazte guzik, ahalako mazo eta makillakin joaten gitxian eliza. Bakoitzak ahal zuana ematen zian, etsaiei buru austeko.

Elizkizunean garaia iristen zanen, eta apaizek baimena eman, denak enborrari sekulakok ematen asten gitxian. Gaztiña ipurdiñ bat izaten uan eta ikaragarritako egurre artzen zian. Gazte guzik eman eta eman, itxilluka. Apaizek nahikoa esaten zuanen,

iñork etzioan kasorik egiten, denak segi eman eta eman, aspertu arte.

Aitu au. Urte batez, ematen ari giñala, gazte bateri mazoko buruk aldegiñ zioan, eta aurreago aulki baten belauniko, mantanilla buruan, erre-zatzen zegon amona bateri bizkarrean eman zioan. Ederra artu zian. An junnan gajoa muturruz aurrea. Etsaiei buru austen ari ziranak ez ituan konturatu zer pasatzen zan. Andik gutxira oitura ura galdu egin uan".

Ohitura honen beste "bariante" bat entzuna dut Zaldibiko lagun baten ahotik. Aulki zaharrak aurretik korura jasotzen zituzten, eta garaia iristen zenean, denak goitik behera elizara bota hotsa eta zarata ateratzeagatik.

Garai bakoitzak bere adierazbideak ditu, eta urteen zamapean batzuek galdu eta besteak sortu egiten dira.

Esteban Otegi (Valentzia)

Besteek esana

“

Gaztagintza piska bat txukundu beharra zegoen, gazta asko ikuiluan egiten baitzen, eta oraindik ere egiten da. Sukaldean askok, eta prentsak behintzat ikuiluan. Baina nik uste dut gehiegizkoa dela hau, gehiegi eskatzen digutela. Gu enpresa bat, fabrika bat, bezalaxe tratatzen gaituzte. Lege ber-berak aplikatzen dizkigute. Baina fabriketan urte guztian egiten dute gazta, nahiz behiena, nahiz nahastua. Horrela, urte guztian aritzen dira lanean. Baina, gurea gehienez ere sei hilabete-koa da, esnea dagoen bitartean”

AMELIA JAUREGI
Emakume Baserritarren Elkarteko Gipuzkoako ordezkaria
HABE aldizkarian

“

Ni konsziente naiz euskalduna izatea zorte handia izan dela. Ez banu euskaraz jakingo, orain ditudan hamar aukeretatik bat ere ez nuke izango. Nahiz eta euskaraz nahiko trakets egin, euskaldun zaharra naiz eta hori zortea da hemen lan egiteko.(...) Herrietakoak garenon esateko modua askotan ikusleek eskertzen dute. Erregistro horiek lagundu egiten dute, baina neurtu egin behar dira. Sinesgarritasuna ematen dute, baina Euskal Herria ez da Goierri eta denek ulertu behar dute”.

MIKEL GARMENDIA
Aktorea
ARGIA aldizkarian



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 88 11 94

ORDIZIA

VOLVO
TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 88 17 00 - 88 17 04

BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

☎ 88 87 02

BEASAIN

TXANDAKA

Soldatagabetuak

Badirudi Espāniako Gobernu berriak neurri bereziak hartuko dituela langabezia dela eta.

Hasteko, urte betez soilik jaso ahal izango da langabetu saria eta lan kontratua haustea ere merkeago izango da nagusiarentzat. Horri Espāniako bankuaren aholkuak eranstean bazaizkio, hau da, zor publikoa gutxitu, soldatak ahalik eta gutxiena igo (Ez dute esaten jeistea hobea litzatekeenik behintzat!), pribatizazioak...

Ez ditut ezagutzen aholku denak emateko izan dituzten arrazoiak baina, langabezi saria gehienez urtebetez jasotzeko gomendioa eman duen taldeak, bestela jendeak ez duela lana bilatzeko ahaleginik egiten, argudiatu du.

Honela bada, gozada bat da lanik gabe egotea eta gainera ministroen soldatak jasotzen dira. Aditu hauekako batzuk katedratikoak omen eta neurri honi esker, langabetu kopurua jeitsiko dela diote. Hainbeste ikasi behar ote zen lerdokeria hauek esateko? Zer egin behar duzue jubilatuekin, noiz hil behar duten kalkulatu eta azkeneko urtea bakarrik ordaindu? Eta lanpostutik kaleratzea merkatzeak zer ondorio ekarriko ditu, seguru zuen ustez egundoko aukera emango diola langileari lanpostuz aldatzeko edo esperientzia berriak dastatzeko edo... Nagusientzat kalterik ez eta langileak buru belarri motibaturik egon daitezen, begira zeinen sistema bikaina asmatu diguzuen! Nolatan planteatzen ari ote dira ministroei soldata(k) igotzea? Izango ote dute motibaziorik lanerako? Gizarajoak, inongo arrisku eta prekariotasunik gabe egunero lanera joan behar! Ezta sorpresarik ere ez dizue opa, aliziente txiki bat sikira, nik ez dakit bada, kalera nola noizbehinka edo, soldatarik jasoko duten ziurtasunik gabe hilabeteen lanean eduki edo... Horrela lanean ari beharra ere!

Iñaki Murua



Eguzkia hartzea gustoko al duzu? Zaintzen al zara?



Joxan Etxabe
25 urte, lorazaina
zaldibitarra

Eguzkiaren gauzarik onena itzala da. Lanean hartzen dut eguzkia aurpegi eta besoetan. Baina eguzkia hartzea ez zait gustatzen, udan behintzat. Udaberrian hala ere gustorago hartzen da eguzkia.

Asier Oiarbide
29 urte, langilea
lazkaotarra

Tokatzen denean, mendira joaten naizenean, hartzen dut. Hondartzara ez naiz joaten. Ahal dela itzalean egoten naiz. Eguzkia badakit txarra dela baina gutxi zaintzen naiz.



Ikerne Urrestarazu
16 urte, ikaslea
lazkaotarra

Ez dut hartzen, ez dut aguantatzen. Ematen badit ondo, baina hartu, ez dut hartzen. Ez naiz batere zaintzen.

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI

OTEÑE
ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun
ingurune paregabean
Larraitz bidea



GAINTZA

☎ 88 98 48



- Mediku akupuntorea
- Pisuaeren kontrola
- Estetiziena

Santa Maria, 8 ☎ 88 12 11
ORDIZIA

ZINEA

BEASAIN

Libertarias Ostirala 21: 22:15; larunbata 2 19:30 - 22:15; igandea 23: - 17:00 - 19:30 - 22:15; astelehena 24: 19:30 - 22:15.

Coacción a un jurado. Ostirala 28: 22:15; larunbata 29: 19:30 - 22:15; igandea 30: 19:30 - 22:15; astelehena 1: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

Pena de muerte. Ostirala 21: 22:15; larunbata 22 19:30 - 22:15; igandea 23: - 19:30 - 22:15; astelehena 24: 19:30.

Clueless, fuera de onda. Igandea 23, 16:45.

Abajo el periscopio. Ostirala 28: 22:15; larunbata 29, 19:30 - 22:15; igandea 30 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 1, 19:30.

ANTZERKIA

BEASAIN:

Ekainak 21, Alexen kale antzerkia "Home Xoc" ikuskizuna, San Martin plazan, 19:30ean.

Ekainak 23, Alexen "Home Xoc" antzerki ikuskizuna, Bideluze plazan, 23:30ean.

OLABERRIA:

Ekainak 21, Tanttaka taldearen "Umekeriak" lana. 14 urtetik gorakoen tzat.

ORDIZIA:

Ekainak 22, "L' home xoc" (Gizon jostailua) kale ikuskizuna Nikolas Leukuona plazan, 13:00etan. 19:30ak inguruan Enparantza Nagusian.

MUSIKA

ARRIARAN:

Ekainak 28, "Etzekit" eta "Gozategi", 23:00etatik aurrera.

Ekainak 29, "Nahi ta

nahiez", "Trikitixa Kontrairo" eta "Deabruak Teilatueta", 24:00etatik aurrera.

ATAUN-AIA:

Ekainak 29, Gozategi, 24:00etatik goizalderarte.

OLABERRIA:

Ekainak 21, Exkixu eta Izaki taldeak, 23:30ean.

BERTSOAK

ARRIARAN:

Ekainak 29, Egaña, Lizaso, Peña eta Sarasua, 22:00etan.

ATAUN:

Ekainak 29, I. Munduate, A. Sarriegi eta A. Sarasola, Aizkoeta elkartean, 20:30ean.

IKUSENTZUTEKOAK

BEASAIN:

Ekainak 21, Antartidari buruzko diapositiba emanaldia "Marron" en eskutik,

Aizkorri Mendizale elkartean, 20:00etan

IKASTAROAK

BEASAIN:

Ekainak 29, Larri ikastaroa BGAK antolatuta.

ERAKUSKETAK

JOSE ANTONIO ROMAN
PINTURA



ORDIZIA:

Ekainaren 28ra arte, Jose Antonio Roman Roren pintura erakusketa, Barrenan.

BEASAIN:

Ekainaren 21etik 30era bitartean, Oscar



**GOIATEGI
OKINDEGIA**

Ogigintzan onenak!

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 160501

- ◆ Egurrezko labeen egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

Barandiaran Taldea,2
ZALDIBIA ☎ 880737

Antton Garmendia



TAXIA

☎ 80 02 49 / 908 - 77 06 30
IDIAZABAL

**Urola
Bidaiak**

Kale Nagusia, 36
☎ 16 15 46 - 47
BEASAIN

UDAKO ESKEINTZA BEREZIA

Oporrik onenak

Prezio onenak

Zerbitzu onenak

Deskontu onenak

DUDARIK GABE
PREZIO ONENAK

% 7 deskontua

Kanariak & Balearrak

% 5 deskontua

Beste STAR bidaiak guztietan



- deskontua STAR programarekin bakarrik
- 15 eguneko aurrerapenarekin erreserbak eginda
- % 30 gordailua erreserba egitean

Barreraren erakusketa, Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan.

Ekainaren 22tik uztailaren 5era arte, Enrique Velazquez eta Oscar Barreraren erakusketa, Aterpe Tabernan.

MENDI IRTEERAK

Beasango mendizaleak:

Ekainak 23, Akierrera (1.124 m.)

Ekainak 30, Zumaiatik Debara.

Beasaingo erretiratuak:

Ekainak 15, Beasain-Onraitia-Iturrieta-Onraitia-Beasain. Irteera Barrendaindik, 8etan.

Ordiziako mendizaleak:

Ekainak 23, Bolivar-Degurixa-Urkulu.

Ekainak 29, Ordizia-Orio.

Idiazabalgo mendizaleak:

Ekainak 29-30, Jentil-baratza-Aralar (gazteen akanpaldia).

Kale antzerkia Goierri

Beasain, Ordizia, Lazkao, Segura, Gabiria, Ormaiztegi eta Zaldibiak, elkarlanean, hilaren 21etik 23ra, zenbait kale antzerki ekitaldi antolatu dituzte. Eskualde mailako aktibitate kulturalak eta herri ezberdinen arteko elkarlangeritza bultzatu eta koordinatu nahi dira. Bi talde etorriko dira: L'Home Xoc, Alex Navarro katalanak mimoa egiten du. Tirri Tarra Show taldeak, berriz, musika eta antzezlanak, biak uztartuta. Egitaraua:

Ekainak 21: L'Home Xoc katalana, Beasaingo San Martin plazan, 18:30ean eta Lazkao Euskadiko plazan, 20:00etan.

Ekainak 22: L'Home Xoc, Ordiziako Nikolas Lekuona plazan, 13:00etan eta 20:00etan Merkaturuko plazan; eta Beasainen Bideluzen, 23:30ean. Tirri Tarra Show, Ordizian, 18:30ean.

Ekainak 23: L'Home Xoc, Seguran, 18:00etan, 20:00etan Zaldibian eta 22:00etan Gabirian. Tirri Tarra Show, Ormaiztegin, 23:00etan.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

☐ Hiru zakurkume, Setter Perdiger arrazakoak, saltzen dira. Hiru hilabetekoak. 16 04 51.

☐ Suzuki RM 125 motorra salgai, 225.000 pezetan. 88 18 02 eguerdian deitu.

Etxebizitzak:

☐ Pisua salgai Ordizian. Kasko historikoan dago kokatuta, Kale Nagusira eta Goen kalera ematen du. Erreformatuta. 88 06 34

☐ Beasainen pisua salgai. Esteban Lasa kalean. Deitu: 80 12 82 edo 88 16 20 telefonoetara.

Bestelakoak:

☐ Lau katakuma, sei aste-koak, eman edo oparitzen dira. Eguerditik aurrera deitu. 180394.

☐ Martxoaren 8an eraztuna galdu eta oraindik arras-torik gabe bazaude, deitu 16 02 82 telefonora.

☐ Beasainen belarritako bat galdu zen maiatzaren 4an. Urrezkoa eta esmeralda batekin. 76 33 26. Arratsalde edo gauez deitu.



GOARDIAKO FARMAZIAK

21: Atorrasagasti.

22-23: Urbizu.

24: Azpilikueta.

25: Jauregi.

26: Larnaga.

27: Cuesta.

28-29-30: Arriola.

Uztailak 1: Urbizu.

2: Atorrasagasti.

3: Azpilikueta.

4: Jauregi.

APROBETXA EZAZU UDA PARTEA!
Ikas ezazu beste hizkuntza bat edo hobetu dakizunak!

Alemaniera - Euskara
Frantsesa - Ingelesa

WYSS

AKADEMIA
HIZKUNTZAK

Urdaneta, 29 behea
ORDIZIA

- ✓ UZTAILA 3 aste (2 ordu egunerok) 15.000 pzta.
- ✓ ABUZTUA 4 aste (2 ordu egunerok) 20.000 pzta.
- ✓ IRAILA 4 aste (2 ordu egunerok) 20.000 pzta.

Uztailaren 1ean HASITA

GOIZ ETA ARRATSALDEZ

Informazio gehiago: 16 16 46 telefonoan
goizeko 10etatik 12 etara eta



- ✓ Ileapaindegia
 - ✓ Edergintza
 - ✓ Solariuma
- itxura aldaketa*

Nafarroa Etorbidea, 37

88 02 97

BEASAIN

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 8893 90 BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA

KALITATEA eta PROFESIONALITASUNA

96KO UDA

✓ UDA IKASTAROAK

- ☐ Kurtsoan utzitako gaien errekupeketak
- ☐ Maila eta arlo guztiak
- ☐ Banakako atentzioa

✓ UNIBERTSITARIOA


- ☐ Kalkulua eta kontabilitatea
- ☐ Estatistika
- ☐ Matematika

✓ HIZKUNTZAK

- ☐ Ikastaro trinkoak
- ☐ Ingelesa, Frantsesa, Alemaniera
- ☐ Irakaslego trebatua

16 01 20

Joan Iturrlalde, 5 BEASAIN



**Xabier Mendiuren
Elizegi (beasaindar
idazlea)**

***“Bi hizkuntzetan
erdi eta erdi
antolatzen baldin
badugu zerbait,
nahikoa egin
dugula iruditzen
zaigu, kunplitu
dugula. Hala ere,
kultur eskaintza
osoa kontuan
hartzen badugu,
konpentsazio
irizpideak erabili
beharko
genituzke euskal
ikuskizunak
bultzatzeko”***

Antzerkia maite dugu-nok inoiz baino teatro gehiago ikusi ahal izan dugu aurten, eta hori poztekoa da. Zorionak, beraz, antzerkizale guztiei eta emanaldi hauek antolatu dituen Udalarari. Izan dira, gainera, azpimarratzea merezi duten alderdi onak eta zuzentzea komeniko litzatekeen txarren bat ere. Horiek denak komentatu-ko ditut artikulu labur hone-tan.

Alderdi onen artean, bat, tokiarena. Beasainen badugu antzoki bat, antzerkia modu egokian eman eta ikusi ahal izateko tokia, urte askotako gabeziaren ondoren. Bere txi-kian goxoa eta polita gerta-tzen da gainera; egin zenean batzuk protestan ibili ziren, txikiegia zela eta. Nik ez dakit handiagoa egin beharko zen, baina esperientziak erakutsi digunez bere tamaina ez da desegokia ere gure kultur errealitaterako: astero-astero izaten dira ekitaldiak, eta pare bat aldiz bete omen da erabat. Eta? Anoetako estadioa ere betetzen da inoiz edo behin: horrek ez du esan nahi are erraldoiagoea egin behar zenik ere.

Jendearen erantzuna da ai-patu gabe utzi ezin den beste ezaugarri bat ere: 500 lagun antzerki-obra bat ikusteko biltzeak izugarrizko poza ematen du, bai antzerkilariei, bai antolatzaileei eta baita ikusleei ere, batez ere beste batzuetan 20 laguneko ema-naldietara ere joan izan gare-noi.

Publikoa horrela biltzeko izango zuen zerikusia, noski, antolatzeko moduak. Behin-goiz, antzerki-saioak sueto ekarri beharrean ziklo baten barruan egin da; horrek, bes-talde, propaganda egokiago egiteko aukera ematen du, eta, gainera, hiru herriren artean egin dira gauzak.

Antzerki garaia

Herrien arteko kolaborazio hau oso puntu garrantzitsua da niretzat. Askotan aipatzen dugu Goierri gure bailararen edertasuna eta aberastasuna azpimarratzeko, eta gero eta gehiago entzuten da plangin-tzak eta proiektuak eskualde osorako egin beharra, baliabi-deak hobeto erabiltzeko eta goierritar guztion arteko ha-rremanak estutzeko ere. Hala ere, diskurtso polit horrek as-kotan ez du ondorioz praktik-kan eta herri bakoitzean geure txilborrari begira bizi gara, al-damenekoari bizkar emanda. Horregatik iruditzen zait horren positiboa ziklo hau Beasain, Ordizia eta Lazkaoren artean egitea. Ez dakit zein izan den emaitza ikusleen aldetik, herri bateko jendea besteetara mu-gitu ote den, baina zalantzarik gabe aurrerantzean ere segitu beharreko bidea eta herri gehiagotara ere zabaltzekoa iruditzen zait.

Puntu baikor ugarien arte-an zuzendu beharreko hutsu-neren bat ere ikusi dugula esan dugu. Ez da nire uste hutsa, gainera: euskaltzaleen artean iritzi zabaldu eta oro-korra da euskarak ez duela be-har bezalako tokirik izan an-tzerki-ziklo honetan. Hamar obratik sei erdaraz izan dira eta lau euskaraz: beasainda-rren ikuspegitik ez da oso pro-portzio txarra ere, baina Goie-rrri osoa kontutan hartuta oso eskasa da euskaldunarentzat. Zehatzago aztertuta, Lazkaon bi obra eskaini dira, biak eus-karaz; Ordizian lau, bat eus-karaz eta hiru erdaraz; eta Be-asainen beste lau, bat euska-raz eta hiru eradaraz. Lautik bat ote da euskararentzako neurri duin eta egokia? Nire ustez ez, inondik ere. Beasai-nen eta Ordizian erdibana

egin balira, eta Lazkaon ber-din utzi, hizkuntz banaketa askoz txukunagoa izango zen. Gure kultur arduradunek hu-rrengorako kontu gehixeago izango dutela espero dugu de-nok.

Euskararen bazterketa ho-nen azalpen moduan batzue-tan esaten da euskal antzerki-talde gutxi dagoela eta ia de-nak ekarri dituztela; hala ere badaude gehiago, eta gainera, erdarazko obrek merkatu za-bala dute hortik zehar; euska-razkoak Goierrira ekartzen ez baditugu, non emango dituz-te? Kalitatearen aldetik ikusi ditugu ziklo honetan erdaraz amateur berde samarrak; ho-rien mailako bat baino gehia-go dago euskaraz, hemendik pasatu ez dena (Iparraldeko talde amateurrek, esate bate-rako).

Hizkuntzaren kontu hone-tan bada, gainera, beste xehe-tasun bat, askotan ahazten zaiguna. Bi hizkuntzetan erdi eta erdi antolatzen baldin ba-dugu zerbait, nahikoa egin dugula iruditzen zaigu, kun-plitu dugula. Hala ere, kultur eskaintza osoa kontuan har-tzen badugu, konpentsazio irizpideak erabili beharko ge-nituzke euskal ikuskizunak bultzatzeko. Adibide bat ipi-niko dut: Beasainen, urtean zehar 400 emanaldi baino gehiago izaten ditu zinemak. Horietatik zenbat dira euska-raz? Hutsa, edo hutsaren hu-rrena. Orduan, udalak aparte 20 ikuskizun antolatzen badi-tu eta horietatik 10 euskaraz, ez dezagula pentsa bi hizkunt-zak parez pare dabilzanik: euskara oso atzera eta bazter-tua dago oraindik ere kultur eskaintza globalean. Zinema-rako esan dudanak, berdintsu balio baitu telebistarako, irra-tierako, egunkari eta aldizka-rietarako.

ERREZETA



Martin Gurrutxaga
Egoki jatetxea
Beasain

ONDDOAK ERRIOXAR ERARA

Osagaiak: 1.500 gr. ond-
do, 6 goilarakada olio, piper-
beltza eta gatza.

Kazola batean onddoak ja-
rri, txikiak badira osorik eta
handiak badira zati handietan
moztuta. Olioaz busti, gatza
eta piperbeltza bota eta lahe-
am sartu. Kazola tapatu. 20
minutura Errioxar saltsa bota
eta beste 20 minutuz utzi.

Errioxar saltsa: 6 tipulin
txikitu eta frijititu, buina gon-
tu gabe. 6 goilarakada olio
eta litro erdi Errioxako ardo
beltz bota. Egosi eta saltsa
laundien butera gutxitzen de-
nean, saltsa Espainiametik li-
tro laundien but bota. Utzi ira-
kiten 20 minutuz.



Joxe Antonio
Garmendia

Goimeneko teknikaria

Goierriko Mendi Nekazari-
tza Elkarte 1988 urtean
sortu zen. Elkarte honetan
nekazal erakundeak eta
Goierriko 22 udaltxeak
dute parte.

Elkarte honek zera du
helburu: nekazariem bizi-
modu baldintzak hobetzea.
Horretarako nekazal era-
kumde eta administrazioa-
ren partehartze eta elkarlan
bateratik sortutako progra-
maik aurrera aterati-
zeko komuni dinen
gestio eta inbertsio-
ak martxan jarri.

Honela, sortzen
diren programa eta
proiektuak xedie
hauetara dituzte, be-
steak beste:

- Nekazaritzako us-

GOIMEN

Nekazarien zerbitzura (I)

tiategiei sarrerak bermat-
zea.

- Gizarte-ekipamendu eta
azpiegituren gutxienezko
mailak lortzea.

- Errenten konbinaketa se-
gurtatzea, industrietan, tu-
rismotik, eskulangintzatik
eta nekazaritzatik eratort-
tako irabazpenak elkarren
osagarriak izanez.

- Natur ingurua errespetat-
zea eta mantentzeko ekint-
zak bultzatzea.

- Histori-kultur ondarea
gordetzeko ekintzak bult-
zatzea.

Goimenek urtero aurre-
kontua mugatu bat du jes-
tionatzeko (Gipuzkoako
Foru Aldundiak ezartzen

duen kopuru bat hain zuzen
ere). Aurrekontu hau ba-
natzeko, eta gure bulegoeta-
ra agertzen diren proiektuei
galbaia pasatzeko Junta bat
dago. Junta hau 13 partai-
dez dago osaturik: 6 Udale-
etako arduradun eta 7 neka-
zal erakundeen ordezkari.
Junta honek proiektu ba-
koitza laguntzea komeniga-
rri den edo ez, eta zer port-
zentaletan lagundu behar
den lantzen du. Ondorioz
sortutako proposamena Ko-
mitera pasatzen da. Komite-
tea da proiektuei argi ber-
dea ematen duena. Komite-
ko bilerara, Eusko Jaurlarit-
za, Foru Aldundia eta Uda-
letako ordezkariak gain, ne-
kazaritza sindikatu eta orde-
zkariak etorri ohi dira.

Lan hau burutzeko
(beharrak jasotzeak,
proiektuak landu,
ekimen berriak pro-
posatu) Goimenen je-
rentseaz gain, admi-
nistratzaile eta dinamiz-
atzaile bat daude la-
nean.



EROSLE ARATZ

Festa onak pasa!

Mariaratz, 4

88 84 96

BEASAIN

JOAKIN ALDANONDO

BULKANIZATUAK

Gumpil lanak, alineazioa
filtroak, olioak, engraseak
frenu pastilak, tubo eskapeak, batueniak

Errota Polygonoa (IDIAZABALgo sarreran)

80.02.571



**"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"**



K. Nagusia 335

Elizategi, 144

Sba. Maria, 169

888 777 538

888 772 779

116 000 444

BEASAIN

LAZKAD

ORDIZA

Joxetxo Zeberio

Beasaindar errefuxiatua Costa Ricako Liberian atxilotu zuten ekainaren 7an. Informazio hau idazterakoan, Costa Rican jarraitzen zuen Joxetxo Zeberio.

Madrilgo metroa

CAF enpresak Madrilgo metrorako 63 metro egingo ditu, 126 bagoi guztira. Honak 11.000 milioi pezeta suposatuko ditu. Apirilaren 87.196 milioi pezetako eskariak zituen CAFek.

240 edukinontzi

Era guztietako pilak jasotzeko 240 edukinontzi banatu ditu Sasieta Mankomunitateak Goierri osoan.

Ibaiak

Nazioarteko Ingurugiro egunaren inguruan Gipuzkoako Diputazioko Nekazaritza eta Ingurugiro diputatuak, Iñaki Txuekak, emandako datuen arabera, Oria ibaia, Goierri aldean batez ere, nahiko egoera kaskarrean dago. Agauntza erreka, berriz, aberetsenatarikoa



Gizarte Segurantzaren egoitza

Beasainen kokatuko da Gizarte Segurantzaren Harrera eta Informaziorako Zentrua. Hiltegi zaharrean egiten ari diren eraikuntza berrian izango du lekua. Goierri, Legazpia, Urretxu eta Zumarragako 70.000 biztanleei emango die zerbitzua.



Azoka arrakastatsua

Jende ugari hartu zuen Ordizian, ekainaren 8an egin zen nekazal elikagaien herri arteko azoka berezian. Larunbat arratsaldean izan zen eta jendeak ondo erantzun ziola ikusita, egun eta ordu horretan, beste azoka bereziren batzuk egiteko asmoa azaldu du Jesus Mari Lariz zinegotziak. Egundorretan sarituak izan zirenak hauexek izan ziren: loreetan Astigarrako Pedro Jose Irizarrek jaso zuen. Bigarren izan ziren Aramako Martin Urretabizkaia eta Zaldibiko Iñaki Azanza. Landareetan Ibarako Montes etxeak jaso zuen. Barazkietan, Aramako Arantxa Zurutzak.

Hurrengo azoka berezia, abuztuaren 6 eta 7an egingo da. Erdi Aroko azoka batean bilakatuko da Ordiziakoa. Handik hilabetera, irailaren 11n, izango da azoka nagusia.

omen da, arrainei dagokienean.

Etxegarate

Ekaina osoan itxita egongo da Etxegarate mendatearen

karril bat, bidezorua sendotzen ari dira eta. Era honetan, kamioiak Nafarroako autobidetik desbideratzeko aholkua eman du Diputazioak. 117 milioi pezetako aurrekontua dute lanek.



MUJIKA



BEASAIN

☎ 88 74 00

URBITARTE

sagardotegia



- Egunero irekita, nahiz eta sagardotegi denboraldia bukatu
- Sagardotegiko menuaz aparte arraina ere egongo da
- Berezitasuna txuleta eta sahieskietan

Erreserba telefonoa: 18 01 19

Ergoiena Auzoa

ATAUN

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea

☎ 88 40 57

ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7

☎ 88 80 29

BEASAIN



Itoizko urtegiaren aurkako enkartelada

Abiadura Handiko Trenaren aurkako asanbladak Itoizko 'Solidarioekin' bat eginez, konzentrazioa burutu zuen joan zen ekainaren 6an, Usabiaga enpresaren aurrean. Ekintza honen bidez, "Itoitzen urtegi ilegal eta suntsitzailea egiten kolaboratzen ari direnak salatu nahi ditugu. Beste enpresa batzuekin batera 'Gruas Usabiaga'-k bere parte hartzen du astakeria horretan".



Gerriko sari banaketa

VII. Gerriko Ikerlan Sarietako sari banaketa argazkia duzue, ikertzaileak, antolatzaileak eta laguntzaileak jaso ondoren. Gogoratu aurtengo irabazleak nortzuk diren: Antton Idiakez, Pello J. Aranburu, Marian Bidegain eta Iñaki Rezolak osatutako taldea, 'Joxe Felix Amundarain Mujika (Zegama, 1755 - Mutiloa 1825)' lanarekin; eta bigarren, Jose Migel Azurmendi, beasaindar presoak, 'Zegamako euskara' lanarekin. Honen saria familiartekoei jaso zuten.

Ainhoa Garmendia

Ordiziar sopranoa ekainaren 29 eta 30ean Donostiako Victoria Eugenia izango den operan protagonista izango da.

Lazkao Txiki

Bertsolaritza umeei hurbiltzeko asmotan 'Lazkao Txiki atxiki!' ikuskizuna aurkeztu zuen Bertsozaleen Elkartek AEK anpadan. Lazkao Txikiren bizimoduko zenbait pasarte eta ikusizun sortzeaz arduratu ziren Murua, Egaña eta Sarasua. Gidoia eta bakoitzak egin beharreko papera aurretik emanda zeukaten arren, bertsoak bat-batekoak izan ziren. Guztira 13 bertsolarik hartu zuten parte. Bi goierritar izan genituen: Iñaki Murua narratzaile paperean eta Mikel Mendizabal aztiarrenean.

Ekaitz Goikoetxea

Beasaindarrak Lekuona bertsopaper lehiaketako lehen bi sariak lortu ditu. Baita Azkoitiko Xabier Munibe ikastolako Udaberri guraso elkarteak antolatutako lehiaketa ere, irakaskuntza ertainetako sailean.

Abelino Barriola

izeneko deklinazio saria irabazi dute Ataungo Herri Eskolako 4. eta 7. mailako ikasleek. Ahoskera hobetzeko asmotan antolatutako saria izaten da.



Marta Fernandez, Ordiziako Urdaneta ikastetxeko ikasleak, Gipuzkoako Coca Cola idazlan lehiaketan 6. postua lortu du, 150 idazlanen artean. Honetaz aparte, lanaren aurkezpen, txukuntasun eta kaligrafia hoberenari ere eman diote saria.

Urruzuno lehiaketa

Eusko Jaurlaritzak antolatutako Urruzuno literatur lehiaketan Beasaingo Alkartasuna Lizeoko Garazi Goia eta Maddi Garmendia izan dira sarituak.

"Ostiela!"

3. zenbakia kalean da jada. Zenbait goierritarrek parte hartu dute honoko honetan ere: Migelanjel Unanua zaldibitarak ("Elizatekoak"), Xabier Mendiguren Elizegik, Jon Mikel Aranok eta Eurne Sarasola itsasondorrek ("Lotsati"-ren inguruan), Iñaki Segurolak munduaren galeraz idatzi du eta zenbait goierritarren aipamenak egiten ditu. Liburudenda eta taberna dezentetan dago salgai, 400 pezetan.



**HIZKUNTZAK
UDAN**

Munduko hizkuntza
zentruen erakunde
handiena

ORDIZIA
Elkano, 8
☎ 88 11 37

BEASAIN
JM Iturrioz, 11
☎ 16 05 72

ZUMARRAGA
Iparragirre, 8
☎ 72 22 23

IKASTARO TRINKOAK
INGELES - FRANTSES - ALEMANIA

Egunean bi ordu, goiz eta arratsaldez
uztaila, abuztua eta iraila

Gurutze Irizar: Euskal Herria eta Sahara ez daude hain urrun

Gurutze Irizar ormaiztegiarra dugu. Lanbidez erizaina da eta Zumarragako eritetxean egiten du lan. Saharar batekin ezkondua dagoenez, Mohamed Salem Embarekekin, behin baino gehiagotan han izana da mediku talde batekin eta oso gertutik ezagutzen du Saharako arazoa. Hamahiru urtez bizi izan zen bertan, baina, osasunak laguntzen ez ziola eta, Euskal Herrira itzuli behar izan zuen. Nahiz eta Salem momentu honetan Indiako enbaxadan dagoen, Gurutze Ormaiztegin bizi da bere bi seme-alabekin. Zenbait saharar ohitura mantentzen badute ere (asko gustatu zitzaigun tea hartzea bezala), edozein euskaldunen modukoak dira.

Egongelara sartu eta jartzeko eskatu zigun. Guk laster jo genuen eserlekuetara, baina, gure harriidurarako lurrean esertzeko esan nahi zigun. Haima batean ba-geunde legez. Horrela bota genion lehen galdera:

G.- Hemengo ia inork ez du erlaziorik Sahararekin, zu zer dela eta joan zinen Sahara?

E.- 1974an joan nintzen lehen aldiz Saharara; baina, benetako Saharara, ez kanpamentuetara. 72an Iruñean karrera amaitu ondoren Tenerifera joan nintzen, eta bertan unibertsitateko ikasle saharar batzuk ezagutu nituen. 75ean gerra sortu zenean, Saharako ikasle horiekin, gaur egun kanpamentuak dauden lekura joan nintzen.

Galdera eta galdera artean, tea edateko aukera izan

genuen, ez gainera nolanahiko tea ordu bete behar izan baikenuen hiru teak hartzeko, ez zeuden txarrak alajaina!

G.- Lehendabizikoz harantz joan aurretik ba al zenuen hango egoeraren berri?

E.- Tenerifan egon nintzen urteetan oso gertutik bizi izan nuen Saharako egoera. Gutxi gora-behera banuen hango egoeraren berri, baina, esan behar hura ez zela egoera normal bat, gerra baten hasiera baitzen.

G.- Hemen 20 urteren buruan asko aldatu dira gauzak; gauza bera gertatzen al da han edo arazoak ildo beretik darrai?

E.- Egoera asko aldatu da. Ni joan nintzenean inbasioa egon zen, Maroko eta Mauritaniaren inbasioa, eta jen-



dea bere etxe eta hiriak utzita, aldegiten ari zen. Hura zoramena zen. Orain jadanik jendea leku batean finkaturik dago kanpamentuetan. Baina, honek ez du esanahi egungo egoera ideala denik.

Esan behar kanpamentuak kokaturik dauden lekua basamortuan dagoen lekuri latzena dela. Udan izugarriko beroa egiten du, eta neguan, berri, hotz ikaragarria. Aljeria eta Sahararen arteko mugatik 70 kilometrorra dago, Aljeriarantz. Aljeriarrek lur hau bazterturik dute, oso gogorra baita bertan bizitzea.

Galdera hau egiten ari ginela, telefono dei bat jaso zuen. Beñatek (bere semeak) hartu zuen telefonoa, eta be-

rehala somatu genuen Salem zegoela bestaldean. Goraiztiak bidali zizkigun, iaz kontatu baitzigun makina bat gauza; bertako egoeraren berri emateaz gain, turbante bat buruan nola tajutu daitekeen erakutsi zigun.

G.- Hainbeste denboran irtenbiderik aurkitu ez dela eta, mantetzen al dute itxaropena ala etsipenak jota daude?

E.- Ez, etsipenak jota ez, baina, gogorra da benetan. Hogeit urte pasa dira azkeneko su-etena izan zenetik eta orain erreferenduma pikutara joan dela ikusten dute. Interes batzuk daude eta Hasanek eta bere atzetik daudenek ez diote arazoari irtenbiderik aurkituko, saha-

ZERAIN

TUIRSMO BULEGOA: 80 15 05



DIAPORAMA

IKUSKIZUN BERRIA
ZERAINEN

KULTUR ETXEAN

rarrak ez badira beraien aurrean belaunikatzen. Etsipenak asalda ditzake, baina, hori bai sahararrek izugarriko pazientzia dute.

Beharbada guda berriz ere hasiko da; sahararrak behintzat horretarako prest daude. Gerrak beldur latza ematen dit, honek jendea hilko dela suposatzen baitu, errurik gabeko jendea, marokiarrek zein sahararrek.

Zer gertatuko den ez dakit, baina, egoera latza da benetan. Hamabost urtetan zehar gerra egon da eta ez da ezer konpondu, baina, negoziazio biderik ere ez dagoenez, hau da irtenbide bakarra. Lurralde botere-tsuek Saharako egoera ahaztu nahi dute; baztertu.

G- Ez da erraza izango Saharara joatea, zu sarritan joaten al zara; zenbat denbora igarotzen duzu bertan?

E- Ez naiz maiz joaten. Urtero mediku eta erizain talde bat joaten gara 15 egun ingururako. Egun hauek bertan operazioak egiteko erabil-tzen ditugu. Normalean ez naiz gehiagotan joaten, lanak ez baitit denborarik uzten.

Afrikako ipar mendebaldean kokaturiko lurralde honek une latzak igaro ditu aspaldidanik. Duela hogeitazero Espainiaren kolonia izan zen. Franco hilzorian zegoela, Marokorekin eta Mauritaniarekin tratua egin eta, Saharako Frente Polisarioak gerra hasi zuen.

Saharar askok bere etxe eta lurrak utzi eta Aljeriako mendebaldean kokaturiko basamortura jo zuten eta han bizi dira "behinbetikoz" ordutik. Gerra izan da orain dela bizipahiru urterarte. Baina, egoera ez da asko aldatu.

Sahararrek ez dituzte bere lurrak eskuratu eta Maroko dago Sahararen domeinuan. Nazio Batuen Erakundeak erreferenduma egitea erabaki zuen, baina Hassanek boikoteatu egin du. Bazuten itxaropen apur bat, egin behar zuen erreferenduma zela eta. Orain, berriz, dena hankaz gora joan da eta inork ez du aintzat hartzen saharar herria.

Izan genuen aukera Beñatekin solasalditxoren bat egiteko ere. Saharako hainbat gauza erakutsi zizkigun; sugandila bat, darrá bat (kostata asmatu zuen zein zen benetako darrá, izara batekin azaldu baitzitzaigun) eta gainera opari gisa Saharako fosil bana eman zigun. Ez da mutiko makala!

G- Badakigu Saharako egoera ez dela batere ona, Euskal Herriak izaten al du kontutan saharar herria? Ba al dago laguntza eskaintzen dion euskal erakunderik?

E- Bai, elkarte bat dago Donostian, Gasteizen, Bilbon eta Iruñean. Esan behar da

Euskal Herritik laguntza asko jasotzen dutela, bai Eusko Jaurlaritzaren aldetik eta baita kanpainen bidez ere.

Sahararrak, jasotzen duten laguntzari esker daude bizirik beraiek ez baitute ezer.

G- Egoera latz horretan egonda, zertatik bizi dira sahararrak?

E- Ia ez dago gizonezkoen kanpamenduetan, frentean baitaude gehienak. Beraz, kanpamenduko lanak, eskolak, haurtzaindegiak, ospitaleak ... aurrera atera behar dituzte. Komunitateko lanak egiteaz gain, etxeko lanak egin behar dituzte; ura bizkarrean ekarri, ogia eskuz

egin, arropak eskuz garbitu... Beraz, lan ugari egiten dutela esan daiteke.

G- Sahararen egoera ikusita, zer irtenbide duela uste duzu Saharako arazoak?

E- Nik ez dut irtenbide argirik ikusten. Esate baterako, ONU-ko kasko urdinak erretiratzea batzuentzat ikaragarria izan da, baina, bertakoei bagenekien hori kontu hutsa zela, ez dute ezer konpondu.

Aurrera begira esan daiteke, gerrara joko dutela ziurrenik eta egoerak ildo bereetik jarraituko duela. Penagarrria da urte hauek guztiak igaro ondoren honela pentsatzea, baina, beste irtenbiderik ez diot aurkitzen.

Ordu t'erdiz hizketan ari-tu ondoren Beñatek "kenpo" ikastarora joan beharra zeukala eta utzi genuen elkarrizketa. Agur bero baten ondoren utzi genuen Gurutzeren etxea. Esan behar, ordu t'erdiz horretan saharar herriarengandik gertuago sentitu ginela eta kontatu zizkigun hainbat gauzak hunkitu egin gintuztela.

**Iruñe Urbitarte
Naiara Etxeberria**



ESKORIATZAKO MAGISTERIO ESKOLA

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

1996-97 ikasturterako aurreinskripzio-epea zabalik dagoela.

Espezialitateak

- HAUR HEZKUNTZA
- HEZKUNTZA BEREZIA
- ATZERRIKO HIZKUNTZA: INGELESA

INFORMAZIOA: IRAKASLE ESKOLA
Tfnoa.: 943 / 71 41 57
20540 ESKORIATZA

ETXARRI KANPINA - IGERILEKUA

- Taberna-Jatetxea
- Aterpetxea (60 lagunentzat)
- 250 kanpinentzat lekua
- 27 karabanentzat partzela ur eta argiarekin

Inaugurazioa ekainaren 22an

☎ 948 - 46 05 37
ETXARRI ARANATZ

Jaien egitaraua

Ekainak 21, ostirala:

19:30ean: Herri mailako plater hausketak.

22:00etan: Tanttaka antzerki taldearen 'Umeke-riak' lana, 14 urtetik gorakoentzat.

23:30ean: Rock jaialdia: Exkixu eta Izaki taldeekin.

Ekainak 22, larunbata:

9:00etan: Lazkaoko txistulariekin goizeresia.

10:00etan: Olaberriko XI. txirrindulari proba.

11:00etan: Probintzi mailako plater hausketak.

16:30ean: Herri mailako mus txapelketa.

17:00etan: Pelota txapelketako finala.

17:30ean: Toka eta Igel txapelketa.

19:00etan: Herri kiro-lak: Olaberria-Beasain.

20:30ean: Herri afaria.

23:30ean: Suziriak, Pi-roctenia Zaragozanaren es-kutik.

24:00etan: Zirika talde-ekin dantzaldia. Ondoren



zezen mekanikoa eta txerri harrapaketa.

Ekainak 23, igandea:

10:00etan: Goizeresia Lazkaoko txistulariekin.

10:00etan: Probintzi eta herri mailako bola txapelke-ta.

11:00etan: Haurrekin ekintzak: parkea, kukaina,

puzgarri txiki eta motor pis-tekin.

13:00etan: Meza.

13:30ean: Haurrentzako bazkaria, Udalak eskainita.

16:30ean: Haurrentzako jokoak.

18:00etan: Asto laster-keta.

19:00etan: Hortzmuga

animazio taldearen saioa.

19:30ean: Lora-sorta eta landareen bedeinkapena.

20:00etan: San Juan zuhaitzaren igoera, txistu eta danboril soinuarekin.

21:00etan: Parrilakada.

22:30ean: San Juan sua.

23:30ean: Drindots taldearekin dantzaldia.

Ekainak 24, astelehena:

10:00etan: Goizeresia Lazkaoko txistulariekin.

10:45ean: Udal korpora-zioaren irteera.

11:00etan: Meza Nagusia Udal Korporazio eta he-rriko abesbatzarekin.

12:15ean: Hamaiketa-koa Udalak eskainita.

13:00etan: Mañukorta eta Joxe Agirre bertsola-riak.

17:00etan: Haur jokoak.

19:00etan: Herri kiro-lak: aizkoran Arrospide eta Olasagasti; harri jasotzen Izeta eta Zelai.

19:30ean: Sagardo das-taketa eta Koskola txaran-ga.



ETXE-ZVRI
SAGARDOTEGIA

- ✱ Sagardoa txotxetik urte guztian
- ✱ Bataio, jaunartze, lagunar-teko eta negozio bazkariak
- ✱ Karta

Aurrez deitzea komeni da

Tfnoa.: 88 20 49
OLABERRIA



EDARITEGIA

☎ 88 95 60

OLABERRIA

GARTXO JATETXEA

gosariak

hamaiketakoak

eguneroko menua

Industrialdea, 118

☎ 88 13 09

OLABERRIA

OGEI S. A. L.

Eraikuntza metalikoak

- ✓ Hormigoneren fabrikazioa
- ✓ Hormigonatu hornitegiak
- ✓ Fatxadetako jasogailuak

☎ 88 52 50 - 4

lurre Auzoa, z/g

OLABERRIA

12 P.K. BEASAIN

Elizak badu bere abesbatza

Herriko jaiak datozela eta, herriko abesbatzako kide den Pruden Beasko-arekin hitz egiteko aukera izan dugu. Abesbatza orain dela 3 bat urte sortu zen, "Sendotzako gazte eta monitoreak hilero elkartzea pentsatu genuen. Honela, gaur egun, hilean behin abesten dugu elizan, hileko lehenengo igandean eta baita ere jai konkretu batzuetan, adibidez San Joan egunean eta Gabonetan". Entseiuak hilero egiten dituzte, "meza hasi baino ordu pare bat lehenago biltzen gara", dio Prudenek.

Abesbatza Julen Barandiaranek zuzentzen du eta partaideak bezala, boluntario gisa dabilta abesten. Jende kopuruari dagokionez, "16, 17 edo 20ren batek hartzen dugu parte eta asmoa ahalik eta jende gehien biltzea da. Abesbatza herriari irekia dago eta nahi duenak parte har-



tzen du". Abesbatza honek herriko elizan abesten du bakarrik eta Prudenek honela dio: "guk ez dugu koru modura funtzionatzen, hala ere gustatuko litzaiguke".

Juan Mari apaizaren ustez "entseiuak hilabetero egin ahal izateko lan egiten ari dira. Kontutan eduki behar da jendeak bere lana baduela eta ez da erraza ados jartzea ordutegi batekin. Baina pozik egoteko modukoa da egiten ari diren lanarekin". Abesbatzak gehiagotan abestu ahal

izango balu, oraindik gustorago legoke Juan Mari. "Nere aldetik ez litzateke arazorik egongo, baina ez da berdina eliza batetan abestea edo jaialdi batetan. Hemen saiatu behar garena da, herritarrak abestu dezatela abesbatzarekin. Asmoa ez da abesbatzak soilik abestea, helburua herriari abesten laguntzea da".

Eliztarrak gustora daude abesbatzarekin. Elizkizunari bizitasuna emateaz gain, alaiagoa bilakatzen baita.

Astelehenean

Aurten San Joan eguna astelehenean ospatuko da eta ohi denez Meza Nagusia. Bertan egongo da abesbatza ere meza bizitzeko asmoarekin.

Honez gain, ostiralean hasiko diren festetan beste gauza asko ere ikusi ahal izango dituzue. Ostiralean adibidez, Ttamtaka antzerki taldearen eskutik "Umeke-riak" umorezko lana antzeztuko du Jose Ramon Soroizek. Larunbatean kirolari loturiko hainbat ekitaldi izango dira, hala nola, txirrindularitza proba, pelota eta herri kirolak. Igandean haurren eguna izango da eta hainbat joku izango dute aukeran. Gauean San Joan bezperako ohiko sua piztuko da. Astelehenean Meza Nagusiaz gain, Udalak hamaiketako eskainiko du eta ondoren bertsolariak. Festak amaitzeko, sagardoa dastatzeko aukera.

Nagore Goiburu

JOSE MARTINEZ ARROYO BULKANIZATUAK

Marratuak, llanta eta neumatiko salmenta

☎ 88 05 66 (Tailerra)

☎ 88 16 69

Iurre Auzoa
OLABERRIA

INYELEC

MoviLine

MoviStar

Banatzaille ofiziala

☎ 16 07 85

Iurre Auzoa OLABERRIA



LADA

ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
☎ 88 09 47

Iurre Auzoa
OLABERRIA



SUMINISTROS

JEFASA S.L.

LANTEGI HORNIGAIK

☎ 88 09 60 - 88 17 43

Faxa: 88 69 05

201 Industrialdea, 6. pab.

OLABERRIA

97 posta kutxa

BEASAIN

Egitaraua

Ekainak 21, ostirala:

23:00etatik goizalde-
rarte, Trabuko taldeare-
kin dantzaldia.

Goizaldera, II. Lau
hankako entsalada jana.



Ekainak 22, larunbata:

9:30ean: Arrantza txapelketa Oria ibaian.
9.00etan izen ematea plaza.

10:00etan: Kalejira Herriko Kriseilu txistulariekin.

10:00etatik 12:00etara



eta 18:00etatik 19:00etara: Bola eta Toka txapelketa probintziala.

10:30ean: Umeentzako marrazki txapelketa eta jo-
koak.

12:00etan: Kilkir txar-
angarekin kalejira.

16:30ean: Plater tirake-
ta Karobietan, herrian
jaiotako eta bertan bizi di-
renentzat.

18:00etan: Umeen tan-
borrada Kilkir txaranga-
rekin. Ondoren pregoia.

20:00etan: Kilkir txar-
angarekin musika kalee-
tan zehar.

23:00etatik goizalde-

rarte: Izadi taldearekin
dantzaldia. Ondoren kale-
jira Antonkalenetik buel-
tan.

Ekainak 23, igandea:

9:30ean: XXXIX. San
Joan proba, 23 urtez azpi-
ko eta elite mailakoentzat.

11:30etik 13:30era:
Eskulangintza erakusketa.

11:30etik 14:00etara
eta 17:00etatik 20:00eta-
ra: Trena herriaren alde
batetik bestera.

12:00etan: Euskadiko
XX. Dantza txapelketaren
kanporaketa, Baratze pilo-
talekuan.

12:00etan: Koadrilen
poteoa Kilkir txaranga-
rekin.

13:00etan: Koadrilen
arteko Futbito txapelketa-
ren finala.

15:00etan: Koadrilen
bazkaria Frontoiz zahar-
rean. Tikeak tabernetan.

18:00etan: Euskadiko
XX. Dantza Txapelketa-
ren Finala.

18:00etan: Kale an-
tzerkia: Alex Navaroren
L'home Xoc.

20:00etan: Buruhandi
eta erraldoiak Kriseilu
txistu taldearekin.

23:30ean: San Joan
sua, Arbola bedeinkatzea
eta dantzariak. Ondoren
eta goizalderarte Iratxo
taldearekin, dantzaldia.
Amaitzean kalejira Anton-
kalenetik bueltan.

5:00ak aldera: Kan-
tzontzilo eta kulero karre-
ra. Ondoren txokolaketa
jana.

ETXETRISNAK



Juan Migel Larrea

**ELEKTRIZITATEA
BURDINDEGIA
FRUITUAK**

80 11 74 Unzurruzaga, 5
Etxekoa: 80 01 53 SEGURA

B I O K
APAINDEGIA

Zurbano, 19 80 00 02
SEGURA



Zurbano Kalea, 10 80 04 16
SEGURA

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**

**EROSLE
GOIKO**

- Ordiziako Gazta Txapelketako irabazlearen gazta
- Etxeko arkumeak
- Bertako haragia


Zurbano, 8 80 03 26
SEGURA

Ekainak 24, astelehena:

9:30ean: 'Segurako Alborada' Kriseilu txistulari taldearekin.

10:15ean: Alkatea eta zinegotziak Elizara joango dira 'Alkate Soinua' ren doinu.

10:30ean: San Joanen Prozesioa eta Meza Nagusia. Ondoren hamaiketakoa Udaletxean.



11:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara: Pista libre pilotalekuan.

12:30ean: San Joan Egoitzako adinekoei Udaren bixitaldia.

13:00etan: Herri kirolak: Zegama Seguraren aurka. Lizaso eta Egaña bertsolariak eta Oria txarangarekin kalejira.

18:30ean: Pelota partiduak Baratze pilotalekuan. Finalerdiak: Tirapu-

Goñi Aritz-Galarzaren aurka eta Artola-Almandoz Koka-Etxeberriaren aurka.

19:00etan: Buruhandi eta erraldoiak.

20:00etan: Mozorroak eta kalejira.

23:00etatik goizalderarte: Drindots taldearekin dantzaldia. Ondoren kalejira Oria txarangarekin, Antonkalenetik bueltan.

Ekainak 25, asteartea:

10:30ean: Kriseilu txistulari taldearekin kalejira.

12:00etan: Bola eta Toka txapelketa herrikoia.

12:00etan: Atsedean elkartean jokuak: Bote, Toka eta Rana. Ondoren "mokadutxo" jubilatuta eta pentsionistentzako.

17:00etan: Umeen jokoak.

18:30ean: Pelota partiduak. Finalak.

20:00etan: Poteo elegantea, dotore-dotore jantzita.

10:00etatik 02.00etara: Oria txaranga. Ondoren kalejira elegantea Antonkalenetik bueltan.

IMAZ Jatetxea

- ◆ Eguneroko bazkariak
- ◆ Karta

Kale Nagusia, 27

☎ 80 10 25

SEGURA

SANTA BARBARA karrozategia

Juan Mari Oiarbide

Kale Nagusia ☎ 80 11 60

SEGURA

GAIARA, S. L. AUTOBUSAK

Mota guztietako bidaiak,
nazional nahiz nazioartekoak
Eskatu aurrekontuak

☎ 80 14 39
ZEGAMA

☎ 88 59 69
BEASAIN

ELORRIPE edaritegia

☎ 801002

SEGURA

Giro
atsegina
eta
pintxo
bereziak



ondoeta

HALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Nagusia, z/g. Tfnoa.: 883102. Faxe: 88 0872 ITSASONDO

Oihartzun handiko lan isila

San Joanetako egitaraua hartuz, parte-hartze handienetakoa, Joxe Mari Telleria buru dela, "Kriseilu" txistulari taldekoek dute.

Goizero joko duten dianaz gain, iluntzero, kabezudoetan parte hartuko dute. Gainera, 23an, Euskadiko XX. Dantza Txapelketan izango dira. Gauean, berriz, San Joan suaren inguruan "San Joan zortzikoa", fandangoak, ariñ-ariñak, eta biribilketak entzuteko aukera izango da. 24an, San Joan egunez dlanan joko duten "Segurako alborada"ren ondoren, "Alkate soinua"-

ren doinuaz Udaletxetik elizara joango dira udal korporazioarekin. Jarraian San Joan prozesioan "San Joan zortzikoa" eta meza bukatzean, Elizatik Udaletxera itzultzeko "Alkate soinua".

Etxe-atarietako alboradak

Bazkalondan elorriak jarri berriak izango diren etxe-atarietan alboradei ekingo diete. San Joan eguneko urteko laugarrena izango da. Aurrez, Urteberri, Pazkoa eta Korpus egunetan pasatzen dituzte atariak, bostgarrena, berriz, Eguberri egunean. "Gaur ohitura-



Jaxinto Galarza, Joxe Etxeberria eta Roke Antonio Telleria, goiko panaderian alborada jotzen.

ri eusteagatik mantentzen bada ere, baliteke txistulariek diru apurtxo bat ateratzeko jarria izatea", dio Joxe Mari Telleriak. Hasiera alkatearen etxean emanda, bakoitzean zortziko bat, fandango bat eta ariñ-ariñ bat jota, 30en bat kale-etxe pasatzeko ohitura dago. Etxe batzutan, ordea, ez da jotzen eta honen arrazoirik ez da ezagutzen. Baina etxe hauetako norbaitek Udaletxean karguren bat hartzen badu, ardurari jarraitu bitartean joko zaizkio alboradak etxe-atarian. Etxeren batean heriotzaren bat izan bada, urte betean ez da han alboradarik izango. Segura, Ze-

rain eta Mutiloa kenduta, ohitura hau beste inon mantentzen denaren aditzaerarik ez du Joxe Mari.


Joan Txiki barbero-ren kasa

Beheko Labea edo Abarke-rone, alboradarik jotzen ez denetakoa da. San Joan egunean, ordea, bera ere Joan izanda, bere etxean joko al zioten eskatu zien txistulariei. Hala, salbuespen bezala hartuta, San Joan egunean bakarrik jotzen zaizkio alboradak Joan Txikiri.

Joseba Telleria



Joxe Mari Telleria, Iñaki Auzmendi, Edurne Ormazabal, Andoitz Telleria eta Ekhi Albizu 1994ko pregoian.



SAN ANDRESKO HEGAZTI TXOKOA

ORDUTEGIA:

LARUNBATA, 4etatik 6etara
IGANDEA, 11etatik 1era

Taldeek aurrez deitu behar dute

☎ 80 12 35 - 80 14 10

SEGURA



MUJIKA Jatetxea

- ✓ Menuak kartan
- ✓ Ezkontza eta janaldietan berezituak

☎ 80 15 07 - 80 16 99
Liernia Auzoa MUTILOA



OTATZA SAGARDOTEGIA

Uda garaian erretegi moduan ere zabalik

☎ 80 17 57

ZERAIN

Arriaran: San Pedro jaiak

Ostirala 28:

11:00etan: Suziri eta buruhandiak.

12:00etan: Marrazki lehiaketa.

14:00etan: Haur bazkaria.

15:00etan: Haur jolasak.

20:00etan: Poteo herrikoa.

21:00etan: Gazte afaria.

**Ondoren eta goizalde-
rarte,** Etzekiat eta Goza-
tegi taldeak.

Larunbata 29:

11:00etan: Suziri eta buruhandiak.

12:00etan: Meza Nagusia.

13:00etan: Herriko agure zaharrenari omenaldia. Ondoren postre lehiaketa.

14:00etan: Herri bazkaria, Egaña eta Peña bertsolariekin.

17:00etan: Mus eta

puntu txapelketa.

19:00etan: Sari bana-
ketak mus, puntu eta pos-
tre txapelketako irabazle-
ei.

22:00etan: Bertsolari
jaialdia: Egaña, Lizaso,
Peña eta Sarasua.

24:00etatik aurrera:
'Nahi ta nahiez', 'Trikiti-
xa Kontraio' eta 'Dea-
bruak Teilatuetan'.

Igandea 30:

11:00etan: Suziri eta buruhandiak.

12:00etan: Meza Na-
gusia.

13:00etan: Hamaiketa-
koa auzoko agureentzat.

16:30ean: Plater haus-
ketak.

18:00etan: Aizkora
apustua.

20:30ean: Idiazabalgo
trikitolariak.

Iñaki Azurmendi aizkoran jo eta ke

Orain dela 2 urte hasi zen serio-serio aizkoran arriarandarra. "Gaztetan anaia ibiltzen zen eta asko gustatzen zitzaidan. Gasteiza lanera joan eta han ez neukan astirik aizkorarako. Hona etorri eta serio hasi nintzen. Orain ondo nihoala ikusita, aurrera segitzeko animoa ematen du", aitortu du.

3. mailan dago une honetan. Iaz mailaz igotzeko puntu-puntu egon zen. Gipuzkoako txapelketan sailkatu bazen ere, Euskadikoan ez zuen zorte berbera izan. "Jendeak esperantza handia du nigan. Nik neroni 2. mailara igo eta han mantentzeko moduan ikusten naiz, baina ligo mailara igotzeko hor beste salto bat dago. Astiarekin hartuz gero, beharbada bai", esan du Iñakik. Orain uda partean, agenda bete beteta dauka. Aizkora hartu eta herriz herri, jaiez jai ibiliko da,



erakustaldiak egiten. Arriaranen bertan ere izango da, igandean.

Herri kirola asto lana ote den galdetu diogu. "Gogorra da baina aurretik prestatzen garenez, ez da hain gogorra izaten. Lehen batere prestatu gabe joaten ziren plazara". Prestaketarena denborak aldatu duen bezala, tongoarena ere berdin. "Tongoa normalean dirua dagoen lekuan egiten da eta herri kirolatan, apustutan diru gutxi egoten da. Garai batean tongoa egiten zela eta ez zela, jendea nazkatu egin zen, eta jende gutxi etortzen da. Gaur egun irabaztera joaten da, galduz gero dirurik ez baita egoten", dio Iñakik.



BILTEGIRATZE SISTEMAK

Salabatore Auzoa, 17
82 p. k.
☎ 88 30 15 - 88 24 40
Faxa: 88 97 41
BEASAIN

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba
MOTA GUZTIETAKO pentsuak, ongarriak, lantresnak

Esuskal Herria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15
☎ 16 07 07

ORDIZIA
OLABERRIA



ARRIARAN karrozeriak

Salabatore Auzoa- Izarraitz, 4
☎ 88 70 91
BEASAIN

Zure esku jartzen ditu:

- ✓ Txapa eta pintura-lanetako azken aurrerapenak.
- ✓ Ibilgailu industrialak pintatzeko labe-kabina.
- ✓ Bankadetan egindako konponketen garantia.
- ✓ Garabi zerbitzu iraunkorra, tfnoa: 88 32 53
- ✓ Aurrekontuak egiten ditugu inongo konpromezurik gabe.

ZATOZ ETA IKUS EZAZU!

Porteriko jaiak

Ekainak 28, ostirala:

17:00etan: VI. xake txapelketa, ikasleentzat, Alfíl elkarteak.

19:00etan: Festen hasiera. Buruhandiak Antzar Gazteak txarangarekin.

20:00etan: Sardina eta txistorra jana.

22:30ean: San Pedro bezperako sua.

23:00etan: Mozorrotuen gaua. Dantzaldia Basajaun taldearekin, pilotalekuan.

Ekainak 29, larunbata:

10:00etan: Beasaingo Txistularien Udal Banda.

10:30ean: Marrazki lehiaketarako orriak banatu dira liburutegian.

11:00etan: Jubilatuentzat Toka eta Igel jokoak, Beti-Biziren parean.

12:00etan: Beasaingo Zaharren Egoitzako 'Gurea abesbatza', pilotalekuan.

12:00etan: VI. Umeen danborrada, Murumendi ikastetxetik abiatuta.

16:00etan: Mus txapelketa J.Larrañaga elkarteak.

16:00etan: Umeentzako jokoak, Oria pasealekuan.

16:00etan hasita: 'Porteri auzoko jaiak' futbito txapelketako finalaurrekoak.

20:00etan: Hildakoen oroimenez Meza.

22:30ean: Porteri Auzoko VI. danborrada, Murumendi ikastetxetik abiatuta.

24:00etan: Izadi taldearekin dantzaldia, pilotalekuan.

Ekainak 30, igandea:

10:00etan: Txistualrien Udal Banda.

11:00etan: Futbitoko 3. 4. posturako partidua.

12:00etan: Laguntasuna Errondallak alaituko ditu auzoko kaleak.

12:00etan: Futbito finala. Ondoren sari banaketa.

17:30ean: Herri kirolak auzoko emakumeen artean.

19:00etan: Buruhandiak Antzar Gazteak Txaranga-ekin, Oria pasealekuan.



Zaharren Egoitzako 'Gurea abesbatza' pilotalekuan izango da ekainaren 29an, eguerdiko 12.00etan. Ondoren lunch-a izango da Beti Bizi elkarteak.

Data aldaketa

Horixe da aurtengo Porteriko jaien berrikuntzarik nagusia. Festa berriak dira, duela 5 bat urte sortuak. Auzo bertako Murumendi ikastetxeak antolatzen zuen kultur astearen haritik antolatzen ziren auzoko jaiak ere, martxoaren lehen aste-buruan. Dena den, eguraldiak laguntza handiegierik ematen zuela ikusita, Sanpedrotara pasatu dituzte jaiak.

San Pedro bezperan aspalditik egin izan da Ezkiaga edo Porteri auzoan San Pedro sua eta erromeria. Auzora hainbeste jende be-

rra etortzearekin batera galduta egon bazen ere, berriro indarrean dago egun berezi hau. Hori aprobetxatu nahi izan dute jaien data jartzerakoan.

Aterpe taberna

Auzoko jaietarako bereziki prestatutako murala ikusgai izango da ekainaren 28tik 30era. Egileak Enrique Velazquez eta Oscar Barrera.

Karaoke txapelketa

Ekaineran 30ean, arratsaldeko 7.00etan, pilotalekuan, Karaoke txapelketa izango da animatzen diren-entzat.

EUSKO LABEL

KALITATEKO
EUSKAL OKELA

PELLO HARATEGIA

Jai egunak ondo igarotzeko okel ona ezin besteko

Mariaratz, 2 BEASAIN

KAFETEGIA
OSKARBI

Mariaratz, 2
☎ 88 77 97
BEASAIN

LOINATZ
Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN

Aterpe Taberna

Festa onak pasa gurekin!

Porteria Auzoa
☎ 88 46 66
BEASAIN

MUTILOA

San Pedroak hemen dira

Ekainak 28, ostirala:

19:30etan: Suziriak eta kanpai jotzea festei hasera emanaz. Ondoren Txerriaren jaitsiera.

20:00etan: Sagardo dastaketa eta txistor jatea.

24:00etatik goizalderarte: Dantzaldia Arkaitz taldearekin. Ondoren kalejira Euskitze herriko soinu-jolearekin. Bukaera txokolate jana herriko plazan.

Ekainak 29, larunbata:

12:00etan: Poteo herrikoia.

14:00etan: Herriko gazteen bazkaria.

16:00etan: Haur jolasak.

17:00etan: Herri mailako pelota partiduak.

18:00etan: Bola lehiaketa. Izen ematea arratsaldeko 7etan itxiko da.

19:00etan: Ardo bana-keta herriko plazan.

20:00etan: Meza.



Argazkiak: Ana Intxausti.

20:30etan: Herri afaria Zeberio eta Lazkano bertsolariarekin eta Juanito Mendizabal txistekontalariarekin.

24:00etatik goizalderarte: Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia. Ondoren txerri harrapaketa herriko plazan.

Ekainak 30, igandea:

9:00etan: Segurako txistulariekin goizeresia.

12:00etan: Meza Nagusia. Ondoren Gabiriko Goruntz dantza taldea.

12:30etan: Toka lehiaketa, federatu gabekoentzat.

13:00etan: Zeberio eta Gorrotxategi bertsolariak. Ondoren Arakama anai-arrebak trikitaliak.

19:00etan: Herri kirolak: Zegama Ziordiren aurka. Ondoren bertsolarien bigarren saioa.

19:30etan: Bola lehiaketa. Izen ematea 8.00etan itxiko da.

Arratsaldeaz eta gaue-rarte: Arakama anai-arrebak.

Festei amaiera emateko txerria erreko da.

Oharrak: Afarirako izen ematea herriko Ostatu jatetxean egin beharko da. Telefonoa: 80 11 66.

Tonbola apaiz etxean.

OSTATU JATETXEA

Festa onak pasa!

Herriko Plaza

Tfnoa.: 80 11 66

MUTILOA



☎ 88 55 00 ORDIZIA



Mutiloko Udala

MUTILOAKO SAN PEDRO JAIK

Urte guztia zain egon ondoren iritsi zaizkigu herriko jaiak. Egun hauek izan daitezela denontzat urte guztiko lanaren atsedena. Asmo honekin herritar eta kanpotik gertutuko zareten guztioi jai alaisu batzuk ospatzera gonbidatzen zaituztegu.

Aldi berean eskerrak eman nahi dizkiegu festak antolatzen parte hartu duten guztiei.

San Pedro jai zoriontsuak!

ATAUN

Santa Ixabel jaia Aian



Ekainak 28, ostirala:

21:30ean: Auzo afaria, Agauntz trikitilari taldea, Begiristain eta Munduate bertsolariak eta Juanito Mendizabal txiste kontalariekin.

Ekainak 29, larunbata:

17:00etan: Ume jolasak: malabarista, zanko e.a. Ordi-ziako taldearen eskutik eta Agauntz trikitilari taldearekin.

19:30ean: Sagardo probaketa: sardinak, e.a.

24:00etatik aurrera: Gozategi taldea.

Ekainak 30, igandea:

10:30ean: Meza Nagusia.

11:30ean: Eate abesbatza Elizan.

12:30ean: Erlojuaren aurkako txirrindulari proba: Kaxeta-Aia.

17:30ean: XI. Dantzari Txikien Txapelketa Mugatua. Ondoren herri kirolak: Beasain Olaberriaren aurka. Gauean Zabale anaiak trikitilariak.

Uztailak 2, asteartea:

10:30ean: Meza Nagusia.

12:30ean: Mendizabal eta Zeberio bertsolariak eta trikitilariak. Ondoren auzo bazkaria.

17:30ean: Bertsolari eta trikitilarien bigarren saioa.

18:00etan: Toka txapelketa.

Gauean Agauntz trikitilari taldea.

Sugeekin lasai

Otsoa lehen, sugea orain... Suge galantak ikusi dituzte, Lizarrusti aldean, 3 metroko luzerakoa ere ikusi omen dute. Zurrumurru asko zabandu da: ekologistek bota dituztela, Diputazioaren lana dela etabar. Diputaziotik, Iñigo Mendiola arduradunak esan digunez, sugeak botatzea debekatuta dago, Diputazioa horren aurka dago eta Europatik neurri zorrotzak, isunak etabar jar-tzen dira kasu hauetan. Iñigo Mendiola esan digunez, suge handiak beti egon dira gure mendi-basoetan. Metro t'erdia, 2 metrokoak badaude. 3 metrokoa arraroa izango litzateke oso. Suge hauek ez dute inongo arriskurik. Euskal Herrian dagoen suge arriskutsu bakarra suge-gorria da, metro erdi ingurukoa. Kanpotik ekarri eta bota ote ditu norbaitek? Ezinezkoa da. Sugeak odol-hotza du eta bere lekura, giora ohituta egon behar du. Eguraldi edo giro horretatik kanpora hil egiten da. Sugeak gainera ez du sekula erasorik egiten eta izkutatu egiten da beti. Lasai ibili beraz... Ez al zen behintzat, garai bateko Sugaar azalduko?

Urtebete alkate

1995eko garagarriaren 17an hartu zuen Alkate-makila, Aitor Auzmendik.

'Herrigintza' taldetik aurkeztu zen. (452 boto-4 zinegotzi). Eusko Alkartasunak (166 boto-zinegotzi bat) bere aldeko botoa eman zion. Herri Batasunak Karmele Aierbe zuen alkategai (492 boto-4 zinegotzi). Urtebete pasa da. Hurrengo alean izango dugu Alkatearekin elkarriketa.

Sanjoanak

Garai batean 'Garaiko Eguzki Jaiak' egiten ziren. Orain San Joan arbola, suak eta Arrondoko festak. Aurtentzen jaiak ekainaren 21, ostiralean hasiko dira eta igandean amaituko. Futbolen, Mus eta Toka txapelketak izango dira. Aparte igande goizean mendi-ibilaldia egingo da 'Olata'ra.

Historia

San Joan zezenketak egin ziren 1776arte. Madrilen debekatu egin zituen. Hala ere 1808erarte behintzat egin ziren tarteko. Horretarako San Martingo Eliz-aurrea ixten zuten. 1723an, 2 zezen atera egin ziren plazatik. Esteban Dorronsoro herriko apaizak 'estokada' eman zion zezen bati.

Heriotza

Maria Zeberio Aranburu. Arrondoko 'Zubiaurre'koa. 87 urte zituela hil zen garagarriaren 8an. Atsekabeen lagun familiakoak.

Jon Aizpurua

Zurgindegi mekanikoa

JOSE M. YARZABAL

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxa: 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
OBRAK
ERREFORMAK**

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- ✗ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✗ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 88 44 00 - 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA

ORDIZIA

Joga astea Barrenan 24tik aurrera

Ekainaren 21etik 28ra bitartean Jogaren astea izango da. Erakusketa, konferentziak, kurtso teoriko-praktikoak, kurtso bereziak, seminarioak eta kanpamentuak egiteko aukera izango da. Hau guztia, Harold Sequiera Joga irakasleak zuzenduta.

'Joga: bizitzaren eskola' gai hartuta, 24an, konferentzia izango da Barrenan, 19:30ean. 25, 26, eta 27an, kurtso teoriko-praktikoa izango da, Barrenan, 19:30etik 21:00etara. Goize-tan, irakasleei eta familiei zuzendutako kurtsoak izango dira Informazio gehiagorako dei 88 06 01 telefonora.

Kurtsoak irauten duen bitartean, Barrenan, Jogaren historia eta beste zenbait informazio ematen duen erakusketa izango da ikusgai.

Harold Sequierak zuzenduko ditu ikastaroak. 30 urte daramatza Joga irakasten. *"Joga, pertsonaren alde guztiak lantzen dituen gizonaren zientzia da, bai alde fisiko, mentala, morala eta espiritual integratuz. Bere helburua zera da, pertsonaren eboluzioa garatzea", dio Sequierak. Jogaren helburuetako bat "gorputz barruko purifikazioa da, gaixotasunen prebentziorako; ezagutza bat lortu bizitza honetan, bizitzaren ikuspuntu sakonago batetara iritsiz".*

Oso gauza errazak erakusten omen ditu Jogak; egoki esertzea, egoki jatea; beste pertsonekin ondo erlazioatzea, familikoekin, e.a.; erlajatzeko ikastea; azken batean bizitzari zuku gehiago ateratzea. Eta erreflexionatzen eta meditatzen ikastea baita ere, bizitza honetan sakontzeko eta bizitza espiritual bat garatzeko.

Familian bizi diren gizon-emakumeentzako Jogak oso gauza oinarritzakoak proposatzen ditu, Sequieraren esanetan. *"Ohitura osasuntsuak, lo egite eta janariarekiko disiplina, e. a. Pertsonak maitasunez tratatu eta beraiekin erlazioatzerakoan biolentzia guztia baztertu. Gure barruko tentsio hori kentzeko gure Arimarekin elkarriketa bat mantentzeko bidea ezagutu".*

Azpibatzerdeak

HBko zinegotziak euskara eta gazteriarri zuzendutako azpibatzerdeak sortzea proposatu zuen, maiatzaren 27ko kultur batzordean, lehenbailehen herriko taldeekin harremanetan jarri behar dela esanez. Kulturako batzordeburua den Raul Lakallek, berriz, ez du funtsezkotzat jotzen azpibatzerdeen sorrera, bere ustez gaur egun gai horiekin zerikusia duten herriko taldeekin nahiko harremana baitago.

Elkarri

Hilaren 29an egingo den "bidezko bake prozesu baten alde" manifestaziora joateko autobusa aterako da Arboleatik, 16:00etan. Txartelak Koiote eta Hegoa tabernetan.

Aek egoitza bila

Santa Ana ikastetxeak gaur egun Goiztiri AEK Euskaltegiak erabiltzen dituen lokalak jangela bihurtu nahi dituela eta, egoitza bila dabilta AEK eta Udala. Egun Goiztirik 130 ikasle inguru ditu eta 140 metro karratuko lokala beharrezkotzat jotzen dute gauzek bere onean jarrai dezaten. Momentuz badirudi Jubilatuen Etxeak bere lehen solairuan duen gela

dela aukera gehien dituen alternatiba.

Futbol txapelketa

Lagunarteko futbol txapelketak bere lehen fasea amaitu berri du eta dagoeneko ezagutzen dira finalaurdenak jokatu dituzten taldeak zeintzuk diren. A multzoan Txiki izan da sailkapenburua eta atzetik Ala-Pivot, Morapios eta Loretos geratu dira. B multzoan, berriz, Wyskas aurrea eta ondoren Haydaos, Urbitarte Sagardotegia eta Kontundientes. Norgehiagokak asteburu honetan izango dira: Txiki-Kontundientes, Ala-Pivot - Urbitarte, Morapios - Haydaos eta Loretos - Wyskas.

24 orduko areto futbola

Ekainaren 29 eta 30ean izango da, larunbat eguerdiko 12etan hasita. Izen-ematea 10.000 pezeta izango da eta 27rako izen guztiak emanda egon beharko dira. Zozketa 27an bertan egingo da arratsaldeko 8etan Txiki

tabernan. Apuntatzeko nahi-koa izango da Txiki tabernara joan edo 880414 telefonora deitzea. Antolatzaileek adierazi dutenez gutxienez 21 eta gehienez 32 talde beharko dira txapelketa aurrera eramateko. Sariak ere ez dira nolana hikoak izango talde irabazleak 60.000 pezeta eta trofeoa eramango baititu. Azken ohar bezala esan gauez lo egiteko lekua ere egongo dela Kiroldegian bertan. Txapelketaren bidez irabazitako dirua Amnistia- ren Aldeko Batzordearentzat izango da.

XV. sakibalo txapelketa

Ekaina eta uztaila bitartean estali gabeko frontoian egongo da saskibalo partidubikainez gozatzeko aukerarik. XV. saskibalo txapelketa martxan da eta 21 taldek eman dute izena. Antolatzaileek 4 multzotan banatu dituzte eta bakoitzetik lehenengo biak sailkatuko dira hurrengo fasera.

Aitor Calvillo



Milagrosako futbolistak txapeldun

Gipuzkoako Eskolarteko txapelketan txapeldun izan dira Milagrosa ikastetxeko neskak, areto futbolearen. Donostiako Gaska kiroldegian jokatu zuten finala Donostiako Axular Lizeoaren aurka. Lehenengo aldia da Ordiziako talde batek probintzia mailako garaipena lortu duela. Irabazleak hauek dira, Zutik, ezkerretik eskubira: Mikel Etxarri, Itziar Albisu, Mirari Sarasola, Izaskun Sarasola eta Virginia Mendi. Beheran: Anitze Etxeberria, Arianna Juarez, Noelia Ruiz eta Veronica Calvo.

BEASAIN

Udarako eskaintza zabala adin guztientzat

Udako oporrekin batera eskaintza berezia antolatuta da kirol mailan, bai eta gaztedi mailan ere. Kirolari dagokionean, kanpaina berezia antolatuta da uztailerako. Adin guztietarako dago diseinaturia, 2 urtetik hasi eta 3. adinekoetara-nokoak. Adimen urriko pertsonentzat ere izango da iharduera berezirik. Arkuak, ur festa, tenisa, mendia, haur jokoak, piraguismoa, eskalada, mendia... denetarik izango da. Informazio gehiago eta zehatzagoa Antzizar Kiroldegian bertan izango duzu. "Iaz arrakasta handiena izan zuena, 'uda kolonia' izan zen. Hau da, kirol batean bakarrik parte hartu beharrean, hirutan parte hartzea", argitu digu Josi Insausti Gazte eta Kirol zinegotziak.

Bestalde, bereziki 16-25 urte bitarteko gazteei zuzenduta, Igartza jauregia txukuntzeko auzolandegia antolatuta da Beasainen bertan. (Gai honi buruzko informazio zehatzagoa 3. orria duzue). "Gazteek euren ingurunea ez dute ezagutzen, eta askok kanpokoak bai. Bide horretan bultzatu dugu auzolandegi hau. Igartzako konpleju historikoa oso garrantzitsua da".

Inbertsio handiak

Une honetan Antzizar Gipuzkoako Udal Kiroldegirik



puntakoena da Insaustiren esanetan, bai instalazio aldetik, bai zerbitzu aldetik. Goierri mailako kirolarientzat ere erreferentzia puntu garrantzitsua omen da. Inbertsio handiak egin dira. "Inbertsioak egin bai, baina horrek eskatzen duen kalitatea eskaintzea da Kiroldegia filosofia. Ez danka zentzurik inbertsioak, kalitatez eskaintzen ez bada", adierazi du. Aurten Fitness zentrua inauguratu da. Aurrera begira igerilekua handitu eta egokitzeko beharra ikusten dute. "Hori da instalazio honek duen behar handiena, herri honetarako igerileku egoki bat izatea. Txikia da. Igeriketa ikastaroen funtzioa betetzen du. Baina beharra hor dago, herriari erantzun bati emateko. Inbertsio horrek instalazioa nahiko osatuta geldituko litzateke", dio zinegotziak.

Abonatu gehiago

Iazko eta aurtengo otsailak konparatuz, abonatuem igotzea % 20koa izan da Kirolde-

gian aurten. "Hau nolatu da? Instalazioak eskaintza bat du eta eskaintza hori ona delako. Abonatuak 91n 1.100 izan ziren, 95ean 3.123. Aurten oraindik kontuak ezin ditugu atera, baina igotze prozesua ikusirik, 3.800era iristea espero dugu. Aurten ere martxan jarri dugun ordutegi eskaintza berriak ere arrakasta izan du: lehen goizeko 9.00etan irekitzen zen eta orain 7.00etatik gaueko 10.00ak arte. Apustu arriskutsuak izan dira baina erantzun egokia, datuak hortxe daude", gaineratu du.

Gaztedia

Era berean, Beasaingo zenbait gazte elkarteekin konbenioak sinatu ditu Uda-

lak. "Gaztediaren batzordeak filosofia bat dauka: gazteen ekitaldiak gazteek antolatu behar dituzte, horretarako gazteen taldeekin harremanak izan behar dira, gauzak proposatu eta bideratzeko bidea izan dezaten. Pozik nago emaitzarekin, gazteak bai baitaiki gauzak non proposatu behar dituen. Herriko jaietan esaterako, protagonismo berezia izan dute gazteek. Asko inplikatu dira, herriarengatik zerbait sentitzen dute", esan du Josi.


Igerilekuak zabalik

Irailaren 15era bitartean egunero zabalik izango dira kanpoko igerilekuak, 12:00etatik 20:00etara. Kirol txartelarekin dohainik izango da. Besteek, haurrek 250 pezeta eta helduek 450.

UEU-rako dirulaguntzak

Udaleko Euskara-batzordea, 1996ko XXIV. UEUko edizioan uztailan izango diren ikastaroetarako dirulaguntzak eskaintzen ditu ikasle euskaldun beasaindarentzat. Ikasleek ondorengo baldintzak bete behar dituzte: Beasainen emoldatuta egotea. UBI, LH2-3 edo Unibertsitateko Maila Ertain edo Goi-mailako ikasketak egiten ari zena, edota UEUra gai bereziak lantzen joatea (Ikasketak egiten ari direnek matrikularen kopia ekarri behar dute).

Eskaerak uztailaren 12a bitartean aurkeztu behar dira. Hometarako, UEUko ikastarorako egindako matrikularen fotokopia, NAREN fotokopia, diruuxteren bateko kontuaren zenbakiak (20 zifrak), Udaletxean emango zaizien eskera-omnia beteta eta egiten ari diren ikasketen matrikularen fotokopia aurkeztu behar dira. Euskara-batzordeak erabakiko ditu laguntzen kopuruak. Informazio gehiago, Udaletxeko Harreman-bulegoan edo Euskara-zerbitzuan (88 75 112 telefonoa).

IBAI-ONDO

**ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEHOAK**

Antzizar Auzoa, z/g

880543

BEASAIN

BERRIZ ARANBURU**ERROPADENDA**

Nagusia, 8

88 04 53

BEASAIN

SEGURA

Segurako festetan, 25ean irtenda, Ordiziako festak aldera saiatuko dira Aitzol Telleria eta Felix Goiburu Broad Peak (8.047 m) tontorrera igotzen, Zegamako jaiak aldera itzultzeko. Informazio gehiago 30. orrian.



Kanpai bueltakoa

Otsailaren 6an Palentzia aldera eramanda, 4 hilabetera ekarri dute beheko barrio aldera ematen duen 320 kiloko kanpai bueltakoa. Brontzezko kanpai pitzatua, Saldañako enpresa espezializatu batean urtu eta material beraz berritu dute. Ekainaren 5ean furgonetaz frontoi zaharrera ekarri zuten, hemendik Juan Mari Telleriak Arrizalako tratorean herrian zehar paseotxoia emanaraziz, jermanenetik, zerkaldetik bueltan, kanpandorratzera eramane zuen. Handik zuzen kanpandorrera igotzeko, bi soka erantsi zizkieten, bata goitik tratel bidez igotzeko eta bestea behetik jendeak tirean edukitzeko, dorreko pareta eta erlaitzak jo eta puska ez zitzaiz. Hala igo zuten bere betiko kanpai lekura.

Bestalde, martxoa aldera hasi zituzten sakristiko obrak bukatu dituzte. Teilatuko urak berbideratuz, he-

zetasuna sortarazten zion kanpoalde guztia saneatu dute. Barrualdean, berriz, uraren tuberiak berritu, zoruko oholtza, mahaiak, armarioak eta kajoiak berriztatu eta aretoa margotzeaz gain, eskuz landutako burnizko lanpara ere jarri dute.

Oxiña Igerilekua

Ekainaren 5ean, Udaletxean egindako zozketan, Gorka Izagirrek, Aitziber Etxeberriak eta Oihana Etxeberriak osatutako taldeari egokitu zitzaion igerilekuko taberna aurtengo denboraldirako. Sokorrista lanean, Beñat Elorza eta Sergio Solis lazkaotarra arituko dira. Ekainaren 26an ireki eta iraila arte izango dira bertan. Abonuen prezioak: 3 urtetik 7ra 1.600 pezeta; 8tik 15era 1.900; 16tik gora 3.200. Familientzat prezio bereziak.

Ikastaroa

Guraso talde batek Udalaren laguntzarekin eskulan eta pintura ikastaroa antolatu du uztailako goizetarako, haur eta gaztetxoentzat. Izenak Udaletxean eman lehenbait lehen.



Amona jigantearen hanka-aidea

Korpus iluntzea, Udaletxe aurrea umez beteta kabezudoak noiz irtengo zain. Ordua pasata irtetzeko itxurarik ez. Halako batean, hant dator Etxezuriko Benito:

- Ze! Irten bearkozue ba!



Atletismo txapelketa

Ekainaren 7an, Ordizian, Goierriko ikastetxeetako kirol eskolarreko koordinatzaileek antolatutako Uda berriko txapelketan, Laiotz Herri Eskolako 29 partehartzailek 19 domina lortu zituzten. Neska benjaminak: Naiara Oiarbidek brontzea 60 metrotan eta Eztitxu Telleriak zilarra luzera-jauzian. Mutil benjaminak: Eneko Agirrezabalek urrea luzera-jauzian, eta Beñat Zubeldiak, Eneko Agirrezabalek, Ergoitz Gonzalezek eta Anaitz Goiak urrea 4 x 60 m errelebotan. Neska alebinak: Garbiñe Etxezarretak zilarra 60 metrotan, eta luzera-jauzian eta brontzea pisujaurtiketan. Garbiñe Etxezarretak eta Eskeine Legorburuk beste bi zegamarrekin batera, brontzea 4 x 60 erre-

- Kabezudok osauta zerek baño amonea eamateko etzeok iñor motell!- bakarren batek.

- Nola ez taula!

Jata umeak andrearekin utzi, alkandora kendu eta hant sartu zen Benito buruz aurrera amonaren gonapetik barrura. Aspaldiko urteetako astindurik handientxoek hartuak ditu. Ez dakigu haren salto, jira eta dantzarako hanka-aidea San Joanetan berriro ikusteko aukerarik izango den.

lebotan. Mutil alebinak: Iker Agirrezabalek urrea 60 metrotan eta luzera-jauzian eta Sebas Telleriak brontzea luzera-jauzian. Mutil infantilak: Mikel Imazek, Xabier Etxeberriak, Unai Lopetegik eta Naiara Otegik brontzea, 4 x 60 errelebotan.

Jubenilek ezin izan zuten

Etxean 3-2 irabazi arren, Ondarroan 2-1 galduta, kanpoko golen balio bikoitzagatik ohorezko mailara igotzeko aukerarik gabe geratu dira jubenilak. Herritik irtendako autobusa bete egin zen eta kotxeetan ere joan behar izan zuen jendeak. Bertaraututakoen arabera, jubenilen mailako partidua baterako penagarria izan zen zenbait zaleturen jokaera. Bestalde, datorren denboraldirako bazkide kanpaina hasi da eta Segurako Futbol Taldeari aportatu nahi diotak, zuzendaritzakoengana joz, 4.000 pezetan du denboraldirako abonua, bikoteek 6.000n eta gaztetxoek 1.000n.

I. Pelota Jardunaldiak

Ikaspelotak antolatuta eskoletan pelota bultzatzeko asmoz, ekainaren 15ean, eskolarteko I. Pelota jardunaldiak egin ziren Donostiako Karmelo Baldan. Laiotz Herri Eskolako partehartzaileek 5 modalitate ezberdinetan parte hartu zuten eta Gipuzkoako 5. gelditu ziren.

Xepeño txapeldunorde

Ekainaren 15ean Zerainen ospatu zen Euskadiko Bola Txapelketan, Xepeño Agirre txapeldunorde geratu zen. Ikus 30. orria.

Joseba Telleria


IDIAZABAL

Sanjoanetarako ospakizunak

Azken urteetako ohiturari eutsiz, San Joan bezperarako jaia antolatu du Gazte Asanbladak. Hilaren 23an egingo den jaia prestatzeko azken entseiuak, ostiralean eta larunbatean (ekainak 21 eta 22) egingo dituzte Guraso Elkarteko aretoan. Gazte Asanbladak jai honetan parte hartzeko asmoa dutenei azken entseiu hauetara joateko eskatuko die, gauzak behar bezala antolatzeko modua izan dezaten.

San Joan bezperan jaia egiteko ezinbestekoa da sua, eta sua pizteko, berriz, paperak, kartoiak... Horiek biltzeko asmoa ere badute antolatzaileek. Bilketa hilaren 21ean eta 22an egingo da, eta ordurako bakoitzak bildutako erregaiak atarian edo etxe aurrean uzteko eskatu du Gazte Asanbladak.

Jaia, Mujika jatetxearen ondoan dagoen aparkalekuan egingo da, hilaren 23an, aforazatuta.



Iazko eskalada ikastaroa. Aurten dena den, ez da eskalatzen ikasteko aukerarik izango. Arg.: Lurdes Intxausti.

Udako kirol ikastaroak

Udalak eta Foru Aldundiak uztailerako kirol ikastaroak antolatu dituzte. Adinaren arabera bi talde osatuko dira ikastaroetan. 16 urte bitarteko haurrek 4 ikastaro hauetan eman dezakete izena: igeriketa, tenisa, gimnasia ritmikoa eta patinak. Helduek, aldiz, igeriketa eta tenis ikastaroa egiteko aukera dute.

Ordutegiak eta ikastaro-

en iraupena jakiteko edo izena emateko Kultur Etxera jo dezakezue. Izena emateko epea ekainaren 21ean bukatuko da. Ordaindu beharreko kuotak hauek dira: umeei 1.300 pezeta; gazte eta helduei 2.000 pezeta.

Euskal Herriko Gazta Txapelketa

Urriaren 27an ospatuko da Idiazabalen aurtengo Euskal Herriko gazta txapelke-

ta. Artzai Gaztak (Idiazabal gazta egiten duten Euskal Herriko artzainen Elkarte) erabaki du txapelketa hori gure herrian egitea.

Duela 11 urte hasi ziren txapelketa hau egiten eta Hego Euskal Herriko 40 artzainek hartzen dute parte. Artzain hauek aurrez probintzia bakoitzean egindako lehiaketetan sailkatutakoak izaten dira. Aurten estreinakoz Iparraldeko artzainak gonbidatzeko asmoa du Artzai Gaztak.

Txapelketa antolatzeko lehen bilera ekainaren 14an izan zen. Udala eta Artzai Gazta ari dira antolaketa lanetan, eta hurrengo bilera uztailaren 19an izango da iluntzeko 8.00etan Udaletxean. Bilera hauek irekiak dira eta edonor joan daiteke antolaketa lanetan laguntzera.

Xabier Urteaga

ZERAIN

Lehenengo ostiralean, hilak 14, diaporama berria aurkeztu zen Kultur Etxean. Bertan izan genituen Mari Karmen Garmendia Kultur sailburua eta Jose Mari Agirre Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea.

Hemendik aurrera Kultur Etxean bertan dagoen Herri Museoaren osagarri izango du diaporama hau. Zerainetarako sarrera izango da eta bertan bizirik iraun duten bizikera, hizkuntza, natura, ondarea, historia, etab. jaso eta erakusten dira.

Museoari diaporama erantsiz, lehen Zerainen jendea nola bizi izan zen eta orain nola bizi den, nondik gatozen, nolakoak garen eta nora joan nahi dugun ikusteko eta entzuteko aukera izango da. Zeraingo irudiak ikustearekin batera, bertako hizkera entzun daiteke. Diaporaman jasotako gaiak hauek dira, besteak beste: artzantza, nekazaritza, gaztagintza, ohiturak, festak, historia, ikazkintza, meategiak, erlijioa, pertsonaia ezagunak, bolatea, natura, baserriak, lehengo eta

oraingo langintzak, arkitekтура, bertako hizkera, etab.

Teknikoki diaporama ordenadorez gidatutako 6

proiektorez osatuta dago. 15 minututan 500 argazki botatzen dira pantaila panoramiko batean.



Euskadiko Bola txapelketa

Ekainaren 15ean ospatu zen Euskadiko Bola txapelketa, herrian bertan. Antonio Alustiza zeraindarra izan genuen txapeladun. Informazio gehiago 30. orrian.

Andoitz Telleria

Diaporama ikuskizun berria

ZEGAMA

Aitzgorri futbol taldea ohorezko mailan



Datorren denboraldian Aitzgorri F.K.ak Ohorezko mailan jokatu du, aurtun bukatu den denboraldian 2. tokiari geratu baitira.

Aitzgorri Futbol Taldea izatez Zegamakoa bada ere, Goierriko herri gehienetako jokalariek osatzen dute: Zegama, Segura, Ormaiztegi, Zaldibia, Beasain... Entrenatzaileak Iñaki Albizu eta Jose Manuel Etxabe dira.

Aurtengoan oso kanpaina ona egin dute, lehen fasean ez zuten partidurik galdu. 2. fasea, berriz, askoz gogorra goa izan da, baina hala ere 2. postuari eutsi dio Zegamako taldeak. Gipuzkoako txapel-dunorde gelditu dira. Denboraldia hain ona egiteak, jokalariek asko animatu ditu aurrerantzean ere futboleko gogor aritzeko, eta ardura-

dunen nahia egun jokatzen ez dutenek ere jokatzerari animatzea dela adierazi digu Angel Gomezek.

Lerro hauen bidez orain arte bezala jarrai dezaten eskatzen die jokalariei eta aldi berean, inork taldean entrenatzen hasi nahi balu, berarekin edo Jose Gereñurekin hitz egitea nahikoa du, edo asteartetan Segurako Futbol zelaira agertzea.

Honez gain, Aitzgorri Futbol Taldearen izenean, jokalarien gurasoei beren eskerronak eman nahi dizkie, jokalariek herri herri eramatzen egiten duten lana dela eta. Udalari ere, eskerrak ematen dizkio ematen dion dirulaguntzarengatik.

Datorren ekainaren 22an, Udaletxeko Batzar Aretoan oroigarria emango zaio tal-

deari eta ondoren herri afaria egingo da Udal arkupeetan. Bertan parte hartu nahi duenak txartelak Ostatuan dituzte 2.500 pezetan.

Kontzertua

Musika Eskolako ikasleek kurtso bukaerako kontzertua eskainiko dute larunbatean, ekainaren 22an, Zine aretoan, arratsaldeko 7.00etan.

Mugaz Muga 96

Aurtengo Mugaz Muga Uztailaren 20 eta 21ean egingo da. Antolatze lehenengo

bilera ekainaren 27an egingo da Kultur Etxean, iluntzeko 8etan.

San Joanak

Ohitura den bezala, San Joan bezperan, hamarrak aldeira, San Joan sua egingo da herriko plazan, herriko txistulariek lagundurik. San Joan egunean, ekainaren 24an, ardo banaketa eta Udal arkupeetan afariak egingo dira. Afalondoan Iturrioz soinu-jolea izango da.

Eduardo Albizu



Maiatzaren 11n Zumaian ospatu zen Gipuzkoako Eskolarteko Txirrindularitza Txapelketan, Aritz Irastorza izan zen txapeldun alebin mailan. Estatu mailako kros txapelketan, berriz, Amaia Urbizu Andorran izan genuen eta 6. amaitu zuen bere kategorian. Bestalde, ekainaren 2an Etxarri Aranatzeko Euskadiko XV. Eskolarteko Mendi Jokuak ospatu ziren. Goierriko beste bi ikastetxeekin batera joan ziren Zegamako Amaia Aizpeolea, Eneritz Arrondo, Amaia Ormazabal eta Laida Otaegi euren ardura den Xabier Intxaustirekin.

ORMAIZTEGI

8. mailako ikasleen aldizkaria kalean

Joan zen asteburuan Herri Eskolako ikasleek egindako eskulanen erakusketa izan genuen ikusgai Kultur Etxean. Orain, 8. mailako ikasleek kaleratutako aldizkariaren bigarren alea berriarekin gatzat.

Urbeltz izena jarri diote aldizkariari eta bertan txukun asko idatziriko artikulak irakurtzeko aukera du-

gu. Artikuluen artean Irizar Kooperatibari buruzkoa, Eskoriatzara bidaia, Añarbeko araztegia, Arteaga-Zabalegi Fundazioa, zuhaitzen landaketa, ihauteriak, kultur eguna... aurki daitezke. El-karrizketak ere badaude: Patxi Zubizarreta idazlea, Goenkaleko Lola, Abraham Olanoren aita eta Asier Iraeta. Horrez gain, asmakizu-

nak, txisteak, jokoak, horoskopak...

Udaleku irekiak

Aurreko urteetan bezala, aurtun ere udaleku irekiak antolatzen dituzte uztailerako 4 eta 12 urte bitarteko haur-errentzako. Udaleku irekiak 8tik 19ra bitartean izango dira, arratsaldeko 3.30etatik 7.00etara. Izen emateak uz-

tailaren 4 aurretik egin ditzakezue, liburutegian arratsaldeko 5.00etatik 7.00etara edo 16 00 74 telefonora deituz.

Haur bati dagokion prezioa 6.000 pezetakoa da, bi haurrena 10.000 pezeta eta hiru senideena 15.000.

Aitziber Murua

ZALDIBIA



Jose Karlos Saez zaldibitarra, Ordiziako Ismael Tejeirarekin bikotea osaturik, El Puerto de Santamarian ekainaren 26tik 29ra jokatu den Espainiako Mus Txapelketan partaide izango da. Txapelketa honetan partaide izan zitezen Legazpiko Zubeldia Arandegia, Urretxuko Golden dantzakia eta Beasaingo Danak Bat tabernaren laguntza jaso dute Jose Karlos eta Ismaelek.

Bestalde, Donostian lorturiko sailkapenari esker, Coronas-ek babesturik Oviedon jokatu zen Kantauriko Mus Txapelketan ere izan dira, hil honen 14 eta 15ean.

Udako jardunkizunak

"UDA 96" kanpaina dela eta, monitoreak behar dira, uztailaren 1etik 19ra, astelehenetik ostiralera eguneko hiru orduz hurrekin lanean

Jose Karlos Saez Espainiako Mus Txapelketan

jarduteko. Soldatari dago-kionean, Udalean indarrean dagoen Lan Hitzarmenaren 5. maila aplikatuko zaie.

Partaide izan nahi dutenek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: Zaldibian erroladatua egon, 1996an 18 urte bete eta euskara ondo menderatzea. Horrez gain honako hauek ere kontutan hartuko dira: denbora libreko monitore edo zuzendari izatea, heziketarekin zerikusia duten ikastaroak eginda egotea, langabetu edo ikasle izatea.

Hauetaketa frogak ekainaren 22an izango dira. Arlo bakoitzak zer puntuazio daukan jendaurrean publikoki ipinia dago herriko hainbat iragarki-tauletan.

Ehizarako lizentzia

Gaztelu Elkartea hasi da hurrengo denboraldirako ehizarako lizentziak ateratzen. Horretarako asmoa duten ehiztariek jo bezate elkartera, iluntzeko 7etatik 8etara, hil honen 24 bitarte.

Ardiki eguna

Datorren urriaren 20an egingo da hirugarren aldiz Ardiki Eguna Zaldibian. Egun horretan, beste gauza askoren artean, bi gauza izaten dira garrantzitsuak:

gazta eta mondeju lehiaketa. Gaurkoa, hain zuzen, artzainei zuzenduriko oharra da. Alegia, egun hori aurten ere izango dela jakinarazi nahi zaie eta gazta guztiak ez saltzeko, baizik eta egun horretarako ere batzuk gordetzeko.

Pilota txapelketako finalak

Datorren igandean, hau da, ekainaren 23an jokatuiko dira Zaldibiko Pilota Eskolak antolatu eta joan deneko hi-

labete luzeetan burutu den pilota txapelketako finalak. Benjaminetan, Amezketa eta Billabonak jokatuiko dute; Alebinetan, Soraluze eta Azkoitiak; infantiletan, Zaldibiko Gurrutxaga-Mendizabalek aňorgatarren kontra; eta kadeteetan, Alkizako Solarrain eta Donostiako Baezek osatuko bikote bat; eta hauen kontra jokatuiko dute Ormaiztegi edo Oiarzungoen, segun eta finalaurreko nork irabazten duen.

Rufino Iraola



Gaztetako lagun-taldea bilduta

Ekainaren 9an, igandea, Oiduiako Matximentanean bildu ziren argazkikoak: Joxe Mendizabal, Joxe Aierbe, Jexux Irastorza, Lontxo Sukia, Joxe Mari Iraola, Pako Irazustabarrena, Joxe Otegi, Andoni Arruabarrena, Segundo Mendizabal eta Joxe Irazustabarrena. Joxe Mari sukaldari zutela otordu ederra egin omen zuten. Jan eta edan bakarrik ez, gazte denborako kontuak kontatu eta beste komeri batzuk ere tarteko, urtean behingo pasara ederki joan omen zen. Oraindik zahartu gabe zaudete eta eutsi goiari!

LAZKAO

'L'home Xoc' antzerkia ikusteko eta bizitzeko aukera izango da ekainaren 21ean plazan, arratsaldeko 8etan. Alex Navarro, Bartzelonatik datorren bakarlariak, kale antzerkia eskeiniko du, bertan dauden guztiek ikuskizunean parte har-

tuko dutelarik.

Zein da 'L'home xoc'? Alex Navarro eta beste guztiok: zu zeu bertan harrapatzen bazaitu. Arretarik gabe bazaude, zeure identitatea lapurtuko dizu. Zure bizitzako une bat lapurtu eta eskatu baino lehen itzuliko di-

zu. Eta honela aldakortasun kate batetan, inoren zortearekin obsesionatu gabe, bata bestearen atzetik izango da.

'L'home xoc' eguneroa ikuskizunean birziklatzen duen profesional transeuntea dugu. Leku irekie-

tan nahiz itxietan, geldirik nahiz mugimenduan, ikuslegoarentzat eta hizkuntza mugarik gabe.

Ekimen hau hilabete honetan eta Goierri mailan izango diren kultur ikuskizunen barnean dago.

SEGURAKO DANTZA ASKATUKO TXAPELKETA EKAINAREN 23an, 18:30ean

Osasuntsu eta berrikuntzekin dator 20. edizioa

Segurako Dantza Txapelketak 20.edizioa beteko du aurten. Frontoi zaharrean hasi, euri, trumoi eta tximistak zirela eta Elizan, orain Baratz pilotalekuan... denetarik ezagutu du. Bikote gutxi aurkeztu zituen urteak ere bizi izan zituen 88. urte inguru hartan. Hori guztia atzean utzita, osasuntsu dator 20. Dantza Txapelketa. 30 bat bikotek parte hartuko dute. Inoiz ez bezala gainera, Goierriko 4 bikote izango dira lehian. Ibon Elorza eta Olatz Nograro, azken 3 urteetan finalean sartu diren idiazabaldarrak eta aurten lehenengo aldiz aurkeztuko diren Ane eta Joseba Juarez ordiziarrek; eta Uxune Apalategi eta J.I. Alonso eta Estitxu Etxaniz eta Igor NARBARTO beasaindarrak. Karmen Etxeberria Segurako alkateak bere poza azaldu du goierritar dantzarien parte hartzeagatik.

Euskal Telebistan

Iaz baino bikote gehiagok eman du izena. Azken 3 urteetako txapeldunek ez dute parte hartuko. Irabazleek urrezko plaka, txapela, zapi, makila, 80.000 pezeta eta aurten lehenengo aldiz bidaia izango dute saritzat. Bigarrenak 50.000 pezeta eta zilarrezko plaka eta hirugarrenak 40.000 pezeta eta brontzezko plaka.

Saioa Euskal Telebistako lehen kateak eskainiko du gaueko 9.30ak edo 10.30ak aldera. Oraindik zehazteko dago. Jose Mari Otermin ETBko programazio buruak aurkezpenean adierazi zuenez, "dantza eta telebista oso ongi uztartzen dira.

Ahalegin berezia egiten dugu, mimatu egiten dugu, eta emaitzak onak dira. Iaz Segurako geldituarazi egin zuen".

20 urte hauetan epaimahaikide izan diren Juan Manuel Oronoz eta Gene Yurre omenduko dira. Hauen le-

kua Antton eta Xabier Mendizabal anaiek hartuko dute. Anttonek 4 aldiz irabazi du Segurako txapelketa hau. Xabierrek, hiru urtetan hartu zuen parte Seguran.

Jantzi dotoreena

Beste berrikuntza bat ere badu. Jantzirik dotoreena

duen bikotea saritu egingo da. Izena emandako bikoteetatik 10-12 aukeratuko dira. Arratsaldeko dantza saioan, pasarela txiki batean, modelo lanak egin beharko dituzte. Adituek jantzi bakoitzari buruzko informazioa emango dute.



Olatz Nograro eta Ibon Elorza, Goierriren ordezkari

Segurako Dantza Askatuko txapelketan azken 3 urteotan finalean izan ditugun goierritarrak dira Olatz eta Ibon. Aurkeztu direnetan finalean sartu dira beti, 7. edo 8. postua eginez. Aurten laugarrengoa, zertxobait gehiago egitea pentsatzen dute idiazabaldarrek. Dena den, "nahiko zaila izaten da, bikote asko izaten dira, aurten 30, eta lehenengo hamarretan sartzea nahiko sari da guretzat".

Seguran maila handia izaten da. "Besteen aldean guk gutxi lantzen dugu. 20taka urte daramatenak badaude eta ezin gara

haiekin konparatu. Azken urteko irabazleak, mutilak, esaterako, besterik ez dute egin, dantza eta gimnasioa. Guk ikasi egiten dugu", zehaztu du Ibonek. Dena den, egunen batean txapeldun izateko esperantza ez dute galdu. "Nahiko zaila ikusten dugu, baina iritsiko da egunen bat txapelen bat irabaziko duguna. Onak erretiratzen badira, agian".

Gogorrena zer den galdetzean zera erantzun digu: "5 minutuko pieza den horretan, ahal duzun guztia-ekin akordatu behar zara. Gerriz behera ondo eraman behar da eta gerriz

gora ere bai. Hasi bezalaxe bukatu behar da. Saltoak, punttak, eskuak... bukaeran ere hasi bezalaxe mantendu behar dira". Gipuzkoan egiten den dantza askoz ere gogorragoa omen da. Txapeldunak gipuzkoarrak izatea normala ikusten du Ibonek. "Besteek oso lasai egiten dute, nekatu ere gu baino gutxiago. Guk denbora guztian punttatan egon behar dugu, eskuak ondo gora... eta besteek nahi duten bezala egiten dute".

Beti elkarrekin

Olatz eta Ibonek 18 urte dituzte eta txiki txikitatik elkarrekin dabilta dantza txapelketetan. Lehenengo txapelketara 8 urterekin aurkeztu ziren. Ikasten, ez dakite justu zenbat urterekin hasi ziren, 5-6 bat urterekin. Beti suelta gustatu izan zaie, eta taldeko dantzak ikasi ere ez dituzte egin. Azken 5 urteetan Amagoia Gerriko dute irakasle. Baina aurretik makina bat izan dituzte: lehenengo Antton Irizar alkatea, Jon Iparragirre, Ane Intxausti eta Xabi Arrieta. Garai batean Idiazabalen bikote dexente eta onak izan baziren ere, momentu honetan Olatz eta Ibon besterik ez dira gelditzen.

X. Agostinho memoriala

Ekainaren 29an ospatuko X. Agostinho memoriala, Ordiziako Gazte Asanbladak antolatzen duen txirrindu paseo-laisterketa. Arratsaldeko 4etan emango zaio hasiera gaztetxe aurrean, irteera neutralizatua izango da. Beasaina joango dira eta omenaldia egingo diote bizikleta istripuz hil zen gaztetxeko lagun bati. Bertan txirrinduentzat lekua eta errespetua eskatuko dute. Ondoren Ordiziara itzuli eta Zalbidiako bidea hartuko dute. Hemen emango da azkarrago joan nahi duenarentzat probaren irteera. Larraitzen mendiko saria eta 'abituailamentua' izango dira. Ondoren Amezketatik Alegira joan eta bertako gaztetxe aurrean izango dute helmuga. Bertan ura, larranjak eta behar dena izango da txirrindularientzat.

Ondoren neutralizatuta joango dira Itsasondoraino. Hemen taldekako erlojuaren aurkako saioari hasiera emango zaio. Nahi dutenek parte har dezakete 6 txirrindulariko taldeak osatuz gero. Proba Ordiziako gaztetxe aurrean bukatuko da.

Antolatzaileen helburua ez da laisterketa konpetitibo bat egitea, nahiz eta nahi duenak bere indarrak frogatzeko aukera izango duen. Beraz, bukatzean ez da saririk banatuko. Oroigarri batzuk, kamixeta dotoreak, banatuko dira parte hartzaileen artean: talde originalenari, mendiko lehenari, 'faroltxo gorria'ri, 'gafe' enari, txirrindu 'kutre' enari, gazteenari, zaharrenari...

Gaur egun beti azkar eta presaka bizi garela eta, txirrinduarentzat eta lasaitasunarentzat leku bat eskatu nahi dute antolatzaileek. Hau dela eta, ez da diru saririk eskaintzen. Laisterketa baino gehiago, jai egun bat da Agostinho memoriala.

Edozeinek parte har dezake, horretarako nahikoa du 4ak baino lehenaxeago gaztetxera azaldu eta bere dorsala jasotzea.



Broad Peak-era espedizioa

Segurako festatan, San Juan bigarrenaren, irteengo dira Aitzol Telleria, Felix Goiburu, eta Koke Lasa beste 3 gipuz-

koarrekin batera, Pakistango Karakorum mendikateko Broad Peak (8.047 m) igotzeko asmoz. Oinarrizko kanpamendura iristeko ia 15 egun beharko diutuzte. Zein aldetatik tontorrera igo, bertan erabakita, 2-3 asteko egokitze fasea hasiko da. Gailurrerako saiakera, Ordiziako festak aldera egingo dute. Itzulera, berriz, Zegamako festak alderako. Besteak beste, Beasaingo Udalaren laguntza izan dute.



Euskadiko Bola txapelketa

Ekainaren 15ean ospatu zen Euskadiko Bola txapelketa, Zerainen. Antonio Alustiza herritarra izan zen txapeldun (ar-

gazkian, eskubian). Bigarren, Xepiño Agirre segurarra (ezkerrean). Biak berdinduta geratu ziren eta desentzatean lortu zuen txapela Antonio.

Bestalde, ekainaren 9an Ereñozun jokatu zen bola saioan Antonio Agirre izan zen irabazlea. Ekainaren 16an herri berean izandako saioan, berriz, Xepiño Agirre geratu zen lehena.



ANTXUSI

- ✓ Sukalde, bainugela eta erakuntza orokorretarako galak.
- ✓ Igeltserotza lan moeta guztiak.

Ezkiaga, z/g ☎ 88 21 40
Antzizar (17 polig.-7) ☎ 16 13 38
BEASAIN

ZALBIDE SAGARDOTEGIA

Txitarro eta sardinak parrilan

☎ 65 21 76

ABALTZISKETA



KEMEN KIROLAK

Zumalakarregi, 1
☎ 88 51 68
ORMAIZTEGI

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Tfnoa.: 88 89 53

ARAMA



1982ko San Joan eguna

Segurako egun handian, San Joan egunean, izandako herri kros probaren sari banaketaren ondorengoa da argazkia.

Antolaketakoak, atze-atzean. Ezkerretik eskubira: Joxe Luix Etxeberria, Joango Garmendia, Jexux M. Ormazabal, Jokin Izagirre, Joxe Otegi, Iñaki Telleria, Jabier Telleria, Ximon Goia eta Joxe M. Telleria.

Zutik atzealdean: Imanol Agirre, Mikel Areizaga, Aitor Ariztimuño, Jon Ariztimuño, Patxi Intxausti, Jabi Olaziregi, Arantxa Etxeberria, Eduardo Aldanondo, Jokin Etxeberria, Fernando Santiago, Igor Otegi, Xabier Ormazabal, Enekoitz Telleria, Jon Agirre, Gurutze Etxeberria, Gurutze Izagirre, Edurne Etxeberria, Idoia Ruiz eta Eli Aldanondo.

Zutik aurrealdean: Oier Berasategi, Luixito Garmendia, Joseba Etxeberria, Eñaut Telleria, Iñigo Otegi, Xanet Garmendia, Aritz Telleria, Aloña Elorza, Alazne Goikoetxea, Iker Garmendia, Imanol Intxausti eta Iñaki Artola.

Eserita aurrean: Asier Telleria, Gaizka Olaziregi, Aitziber Etxeberria, Josune Telleria, Larraitx Insausti, Oihana Etxeberria, Leire Iparragirre, Ainara Goenaga, Aitor Leturia, Jon Iñaki Izagirre eta Jon Intxausti.

Alpe
SUKALDEAK



Zatoz gure erakusketa ikustera!

SUKALDEKO ALTZARI
ETA
ELEKTRAGAILUAK

- Ordenagailuz diseinatu eta geuk montatuko dugu zure sukaldea.
- Formika, PVC eta haritz zuraz egindako altzariak.
- 5 urteko garantia

Salmenta eta erakusketa

MARIARATZ, 4

☎ 88 86 84

BEASAIN

BEASAIN



Gazteria Kirolak

Antzizar Kiroldegia gora doa

zatoz!



BEASAINGO UDALA (BIZKAIA)
AYUNTAMIENTO DE BEASAIN

IMD-KUE

